

# ASTELEHENKO Goienkaria

2008ko uztailaren 21a > Astelehenetan > IV. urtea > 199. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Hemen ez  
gara ohartzen  
Leze Txikik  
duen balioaz;  
kanpoan bai"

Alvaro  
Arrizabalaga  
Aranzadiko  
arkeologoa > 06



**G2a**

Oñatiko Udal  
Musika Banda,  
Oskorrirekin > 23

**DEBAGOIENA**  
Tanatorio zerbitzua Oñatin,  
Arrasaten eta Bergaran > 09

**ARETXABAleta**  
Uztailaren 30ean itxi eta irailean  
botako dute kirol etxe zaharra > 13

**KIROLAK**  
Aitor Murua gazte aretxabaletarra,  
Munduko Trialsin Txapelketara > 16

INTERNET > WI-FI KONEXIO SISTEMA DEBAGOIENEAN

## Gero eta errazagoa da kable barik Interneten nabigatzea

**DEBAGOIENA** Ibarreko liburutegi gehienetan dago wi-fi sistema; azkena jartzen Oñatikoa izan da

**ERABILTZAILEAK** Gero eta ohikoagoa da jendea eskuko ordenagailuarekin jardutea, tabernatan baita

**INTERNET** Batzueta pasahitza eskatu behar zaie arduradunet; beste hainbat tokitan automatikoki sar daiteke > 03

ARRASATE > OMENALDIA

## Pedro Biteri omendu dute

Filantropo arrasatear ezaguna jaio zela 175. urteurrena bete zen egubakoitzean > 04

### Antzuolan Salvador Peña 'mairua' agurtu dute aurten

Eguraldia lagun eta ohiko ikusminarekin, Mairuaren Alardea egin zuten zapatu arratsaldean Antzuolan, bertako jaien barruan. Aurten go alardea berezia izan da 39 urtez mairuaren rola jokatu duen Salvador Peña ezaguna agurtu dutelako. Merezitako omenaldia jaso zuen Peñak; Pedro Iturbe Antzuolako alkateak eta Joseba Iparragirre jeneralak esker oneko hitzak eskaini zizkioten, eta alkateak plaka oroigarria eman zion, herritarren txaloen artean. Jai giroa nagusi izan da Antzuoluan lau egunez, atzoera arte. > 24



Argazkian, zapatuko Mairuaren Alardeko irudi bat. Salvador Peña ezagunaren azken errendizioa izan da aurtengo.

JOSETXO ARANTZABAL

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05  
Elkarritzeta > 06  
Iritzia > 07-08  
Herriak > 09-14  
Kirola > 15-22  
Kultura > 23-27  
Sailkatuak > 28  
Irrati-Telebista eta  
Hitzorduak > 29  
Berri-zakua > 30-31  
Azkena > 32

### KIROLA > TXIRRINDULARITZA

## Artola garaile Elgetan

Azpiru Ugarte taldeko Ugaitz Artolak irabazi zuen atzo jokatutako Elgetako 24. Mendiko Sarian. Artola ihes eginda iritsi zen Elgetako helmu-gara. Erorikoak izan ziren protagonista ibilbideko 120 kilometroetan. > 15



Irailera arte,  
irakurle!

Udako oporrak hartuko ditugu gaur ASTELEHENKO GOIENKARIAn. Hurrengo zenbakia irailaren 1en argitaratuko dugu. Ordura arte, ondo igaro oporrak eta bueltararate.

**SUPER AMARA**

**DENAK GUTXIAGO BALIO DU**

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkaleku

**Goienkaria**  
astehenean, aste bukaera osoa

# Harpidedunen txokoa

**PARTE HARTZEKO**

**SMS 5533**  
**harpidetza@goiena.com**  
**Tel.: 943 08 10 50**

**Uztaileko  
sari nagusia**

**Zu izan zara  
irabazlea, zorionak!**

**Argiñe Zurutuza Alberdi**

(Beasain)

**HONDARRIBIKO LANDETXE BATEAN  
GAU BAT**



## Iraileko zozketa

**Aquarium-erako sarrerak**



Bidali AG SARRERAK 5533 zkra

**KAMISETA + POLTSA**



Bidali AG KAMISETA 5533 zkra

**CD-IRRATIA\_STEREO**



Bidali AG CD 5533 zkra

## SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

**ARBELAITZ JATETXEAN BI PERTSONANDAKO AFARIA**

Zozketan sartuko dira: 08-07-22tik 08-09-25 ra jasotakoak

**Arbelaitz**  
ARBELAITZ • DONOSTIA

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZA dei bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena getionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haien zuentzoko edo ezetatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

TEKNOLOGIA BERRIAK > INTERNET

# Kable barik nabigatzea gero eta samurragoa da Debagoienean

**LIBURUTEGIETAN NAGUSI** Bailarako liburutegi gehienetan aurki daiteke gaur egun wi-fi sistema; Oñatikoa izan da zerbitzu hori eskaintzen azkena

**TABERNETAN** Hainbat herrietako tabernetan ere kable gabeko konexioa aurki dezakete erabiltzaileek; bereziki Arrasateko erdialdeko tabernetan

**BI MODU** Batzuetan arduradunei nabigatu ahal izateko pasahitza eskatu behar zaie; beste tokietan, berriz, automatikoki sartzeko aukera dago

MIRIAN BITERI > BERGARA


Wi-fi bidezko konexioa modan dago. Azkenaldian aditu batzuek sistema hori osasunarendako kaltegarria izan daitekeela ohartarazi eta kable bidezko konexioaren aldeko apustua egin badute ere, gero eta ohiko da horrelako konexioa topatzea gurean. Era-kundeek eraikin publikoetan jartzen dihardute apurka eta hainbat enpresa pribatuk ere bide bera jarraitu dute, bezerei zerbitzua dohain emanet. Horren harira, Jaurlaritzak, Spriren bitarte, laguntzak eskaintzen ditu hori emateagatik.

Oñatiko Udalak izan da zerbitzu hori jartzen azkena. Azken astean hainbat berrikuntza jarri dituzte abian kultura etxeko liburutegian; tartean, wi-fi konexioa jarri dute eskuko ordenagailua etxetik eraman ezkerro Internetez nabigatu ahal izateko. Hango arduradun Arantza Ibarrondok azaldu duenez, helduen liburutegian zegoen premia handiena: "Ikasle unibertsitarioak eta beste maila bateko ikasleek eskatzen zuten. Oso normala da horiek euren eskuko ordenagailuarekin etortzea eta beraz, eskaera handia zen".

Gazteleku ere badute. Orain dela bi urte, ekipamendu berria martxan jarri zenean sarea aldatu zela aipatu du Iñigo Blaiñeak. Horren harira, Udalak udal eraikin denak wi-fiarekin konektatzeara gura du. Ikastetxeetan ere ez da falta horrelakorik, hala nola, Eteon eta Oñatiko Lege Soziologiko Nazioarteko Erakundean.

## ARRASATEN, TABERNETAN

Bestalde, Arrasateko eraikin publikoetan Kulturaten baino ez dago edozein erabiltzailearentzako eskura. Baino, erdialdeko



Argazkian, Elgetako Espaloia kafe antzokiko erabiltzaile bat eskuko ordenagailua erabiltzen, egubakoitzean. JOSEKO ARANTZABAL

taberna askotan aurki daiteke zerbitzu hori. Esaterako, Ekaitzen, Iluntzen, Dat tabernan, Jai-Zalen, Etxosten, Kajoin, Yamain, Arrasate eta Mondragon hoteletan topa daiteke.

Bergaran ere antzeko zerbaitegatzen da. Udaletxe informatikari Ander Unzueta azaldu dueñezi, kultura etxeen dagoeneko konexio horren bidez nabigatzeko aukera dago, liburutegiko arduradunari pasahitza aurretek eskatu ezkerro. Aroztegi aretoan ere badago: "Barrurako erabiltzen da hangoa bereziki, erakusketa eta

antzeko ekintzak daudenean". Gaineratu du Udalak, oraingoz, ez duela bestelako eraikin publikoetan jartzeko asmorik.

Miguel Altuna institutuan ere badute. Hango Mertxe Laskurainek adierazi digunez, kanpotik etorritakoek erabiltzen dute bereziki. Ikasleek ere aukera duten arren, zerbitzu hori ez dute la erabiltzen dio: "Klasean daudenean ikastetxeko ordenagailuekin konektatzeten dira". Horretaz aparte, hainbat tabernetan eta jatetxeetan ere badute; esaterako, Ziripoten edo Etxagin.

## ARKUPEN OPORRETATIK BUELTA

Aretxabaletan momentuz ez dute inon. Arkupe kultura etxe berrian jartzekotan dabil Udalak; baina, martxan noiz jarriko den zehazteke dago oraindik. Iraillera arte, gutxienez, ez dute abian jarriko hori. Liburutegian egongo da.

Eskoriatzan, gainontzeko herriean bezala, liburutegian dago. Orain dela bi urte inguru jarri zuten han. Ordenagailu zerbitzuak bertan edukita wi-fi izatea "interesgarria" izan zitekeela pentsatu zuten. Harrera ona izan du, bereziki ikasleen artean.

Aramaion ere kultura etxeen dute zerbitzu hori. Konexioa gura duena liburutegira joan behar da eta sartzeko baimena eskatu behar du, Bergaran bezala. Udalak, baina, hori aldatu gura du. Internetera zuzenean sartzeko aukera izatea nahi du, pasahitza barik.


## TORREBASON ZEHAZTEKE

Antzuolan oraingoz ez dago gune-rik. Udalak Torresoroa kultura etxe berrian horrelakorik jartzea edo ez aztertzen dihardu. Antzuolako alkate Pedro Iturbek baieztagatu du aukera hori sakon aztertu behar dutela, "kaltegarria izan daitekeela diote eta aditu batzuek". Turismoarekin lotutako negozioak ere modara apuntatu dira. Hala, erabiltzaileek Ibarre landetxean aurkituko dute mota horretako konexioa.

Elgetarrek, bestalde, liburutegian aurki dezakete zerbitzu hori. Udalak esan digu oraingoz ez due-la beste eraikinetan jartzeko asmorik. Horrez gain, Espaloian ere badago. Konexioa dohainekoia izateaz gain, eskuko ordenagailu bi dituzte eskura. Kafe antzokia zabaldzu zutenetik eskaintzen dute: "Proba moduan jarri genuen eta pozik gaude. Gazteek nahiz nagusiak eguneroko gauzetaarako erabiltzen dute: musika entzuteko, korreoa begiratzeko edo oporrak antolatzeko", diote arduradunek.

Gatzagan, azkenik, udaletxeen bakarrik dute eta hango jarduerara bakarrik mugatuta dago. Irailean zabalduko duten Soran Etxea hotelean ere egongo da.


Agerian geratu denez kable barik nabigatzeko gune asko daude gurean. Uhin onak edo txarrak zabaltzen dituen edo ez, denborak esango du, betiko moduan.



- Etxebizitzen ekipamendu integrala
- Merkatuen lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA  
**Ipar**  
project, s.l.  
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA-ALTZARIAK

Telleria 23, D5 pabilioia  
Labegaraieta Industrialdea BERGARA  
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44  
www.iparproject.com





Herritar ugari hurbildu ziren Alfontso X.a plazara Biteriri eskainitako omenaldira.

JOSEKO ARANTZABAL

OMENALDIA &gt; PEDRO BITERIREN JAIOTZAREN 175. URTEURRENA

## Pedro Biteriren lana goraipatuz omenaldi beroa eskaini diote

Alfontso X.a plazan Biteri filantropoari omenaldi beroa eta jendetsua eskaini zioten; musika, dantza, kantua eta lore-eskaintza izan ziren

JASONE ZABALA > ARRASATE  
Egubakoitzean egin zioten Pedro Biteri Arana zenari omenaldia. Egubakoitzean bete ziren 175 urte Biteri jaio zela. Arrasatearrak esker ona adierazi nahi zioten filantropo ezagunari, Alfontso X.a plazan bere omenez eginda dagoen monumentuaren aurrean. Jose Mari Velez de Mendizabal historialari arrastearrak, Biterik herriari egingako ekarpena goraipatu zuen, "Biterik bezain besteko garrantzia" izan zutela "bere jarrai-

tzaileek". Gainera, adierazi zuen Biterik asmatu egin zuela Felix Arano irakaslea kontratatzerakoan, Aranoren hezkuntza "errespetuan, ingurune naturalean, besteei entzutean eta ezaugtzak transmititzean" oinarritu baitzen. Ekitaldian zehar, berbaldiak eta musika tartekatu ziren. Pello Ramirez biolontxelo-jotzaileak eta Juantxo Zeberio piano-jotzaileak, bertara hurbildu zireneni musika saioa eskaini zieten. Aurreskua ere dantzatu zuten bi gaztek

monumentuaren aurrean. Juanito Leibar Biteriren biografia-ren idazleetako batek, zera adierazi zuen: "Ez dakit nola idatzi nuen biografia, Biterik biografiarik ez dauka-eta. Bere bizitza ez zen, adibidez, Seber Altuberenabea bezalakoa izan. Altubek bidaiatu egin zuen, politikaria izan zen,...".

Dabid Arzamendi ezaguna Aranoren ikasleetako bat izan zen, eta adierazi zuen filantropoak 800.000 pezeta eman zituela XX. mendearen hasieran. Dirutza handia garai haietan. Oihana Aranburu jarduneko alkateak bestalde, esker oneko hitzak izan zituen Biterirendako, eta lore sorta jarri zuen Biteriren monumentuan.

AZPIEGITURAK &gt; ABIADURA HANDIKO TRENA

## AHTren aurkako protestaldia egin dute Arrasaten

Egubakoitzean egindako elkarretaratzean, AHT egiteak suposatzen duen "txikizioa" salatu nahi izan zuten herriko plazan bildutakoek

J.Z&gt; ARRASATE

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) obrak Debagoienean hasi dira. Hori salatzeko elkarretaratzea egin zuten egubakoitzean Arrasateko plazan.

Guztira 200 pertsona inguru elkartu ziren *Obrak Gelditu! AHT-rik ez!* leloa zeraman pankartaren atzean.

AHTren aurkako kidea den Hilario Manzanedok obrak "isilean eta ezkutuan" hasi direla salatu du. Adierazi du, politikariek uste dutela munduko lur eta uren jabe direla, eta udako opor egin hauek erabilten ari direla AHTren lanetan aurrera pausuak ematen joateko, inguruko lurrei izugarrizko kalteak eginez. Gaineratu du, nahiz eta makina bat edo bi izan inguruko lurretan sartu direnak AHT egiteko lanekin hasteko, dagoeneko astebete edo

hamar egunetan naturari egin dioten kaltea ikaragarria dela eta erraztasun askorekin doazela lan hauek aurrera.

Elkarretaratzearen ondoren, azpiegitura horren lanen gaineko bilera informatiboa egin zuten gaztetxeen, eta han 70 lagun inguru bildu ziren. AHTren lanak salatzen jarraitzeko eman beharreko hurrengo pausuak zeintzuk diren aztertu zituzten, eta horri begira Debagoienean indarrak bildu eta "egiten ari diren txikizioa" salatzen jarraitzeko asmoa azaldu dute.

DATOZEN EGUNETAKO EKINTZAK

Gaztetxeen norberaren proposamenak mahai gainean jarri ostean, datorren bi asteren buruan beste protesta ekintza bat egingo dutela adierazi du Manzanedok.



Herritar ugari hurbildu zen herriko plazara egubakoitzean.

JOSEKO ARANTZABAL

## Euskarak batzen gaitu



Astelehenetik barikura  
eguneko menua

Asteberuetan  
plater konbinatuak, ogitartekoak eta menu bereziak

ARRASATE > ANTONIO ALVAREZ SOLISEN HITZALDIA

# "Euskaldunen subiranotasun nahiarekin bat egiten dut"


Aurrera Bolie ekimenak antolatuta, Antonio Alvarez Solis kazetari ezagunak adierazpen askatasunaren gainean jardun zuen Arrasaten

A. BARRUSO/E. MENDIBIL > ARRASATE  
Arrasateko udaletxeko osoko bilkuren aretoa leporaino zegoela, Antonio Alvarez Solis kazetari ezagunak hitzaldia egin zuen egunean, Aurrea Bolie ekimenak gonbidatuta. Berezkoak dituen umorea eta ironia erabili zituen Alvarez Solisek adierazpen askatasunaren gainean luze eta zabal jarduteko. Hain zuzen ere, kazetaritzan eskubideen urraketa eman dela uste du kazetari madrildarrak: "Urte luzeetan odol ugari jario zen prentsa librea lortzeko. Orain, ordea, herritarrok prentsarengandik defendatu beharra daukagu, boterearen pieza bihurtu direlako gaurko komunikabideak. Masak, jendeak, barneratu egin du faxismo

finantzarioaren pentsaera, eta pentsamendu libre desagertu da; pentsatzera ausartzen denari txarto begiratzen zaio. *Homo sapiens* izatetik *homo habilis* izatera pasatzen ari gara. Batzuk uste dute libreak direla teknologiei buruz dakitelako, baina ez da horrela; atzeraka goaz".

#### 'IPARRALDEKO GERRA'

Euskal Herriko auziaren gainean zera esan zuen: "Iparraldeko gerra deritzot hemengo egoerari. Beste toki batzutan modurik lasaienean bizi dutena, tragedia bihurtzen da hemen eta pintada bat egitea ere ekintzat terroristatzen jotzen dute. Euskaldunen subiranotasun nahiarekin bat egiten dut eta uste dut badela



Antonio Alvarez Solis egunean Arrasateko udaletxean, Patxi Gaztelumendi alboan duela.

ARRITXU BARRUSO

garaiak estatu garaikideekin bukatzeakoa, demokrazia parte haritzale bat eraikitzeakoa, beste mota bateko instituzioak sortuz. Instituzio herrikoiek eratutako sare batekin egiten dut amets". Honekin lotuta, Radio Euskadi kola boratzailea erreferendum egitearen alde azaldu zen: "Erreferendumak ez du gizartea banatzet. Banatzen duena da erreferendum ukatzea. Herritarri erreferendumean hitz egiteko aukera

ematen bazaio eta bozketa bere aukerak galtzen badu, besteek izango dute boterea, baina borrokatzen jarraituko da". Ino Galparsoro Arrasateko alkatearen esperteratzea ere ukitu zuen: "Estatu espainiarak nahi du guk gai honi buelta asko ematea, azalpen simple bat bila diezaigun. Madril-dik fronte askotako gerra bat dago euskaldunen gehiengoaren borondatearen aurka. Bakarrik geratzeko beldur da Espainia eta

Espainia izateko beste errealitate batzuk ukatu behar ditu". Zera gaineratu zuen: "Arazo politikoa arazo etnikoa bilakatzen dihardtute. Espainian euskaldunetaz hitz egitean, orain dela mende pare bat agoteez hitz egiten zuten moduan da: separatuta dagoen herri madarikatua"

Hitzaldiaren amaieran, udaltxean batutakoek *Zorionak zuri* abestu zioten Alvarez Solisi, egubakoitzean 79 urte bete zituen-eta.

## Bergarako saihesbidea asfaltatuko dute datozen egunotan

Diputazioak jakitera eman duenez, Bergarako saihesbidea asfaltatzeko lanak hasiko dituzte uztailaren amaieran. Asfaltos Urretxu enpresak burutuko ditu lanak, 2.077.675 aurrekontuarekin. Hasiera baten, lanek bost hilabeteko iraupena izango dute. Ondartzako biribilguneetik Labegaraietara doan tartea asfaltatzearaz gain, saihesbideko tarte horretan diren bi Zubiren euste lanak edo 1,50 m. zabaleko hormigoizko zortzi areka egingo dituzte 2,8 Km-ko tartean.



JOSETXO ARANTZABAL

## > ARRASATE **Kalean laban batekin mehatxatzearen gizon bat atxilotuta**

Ertzaintzak gizon bat atxilotu zuen zapatu gauean Arrasaten, laban batekin jendea mehatxatzeagatik. Gauerdi inguruan izan ziren istiluak; 40 urte inguruko gizon bat oihuka hasi zen Otalora kaleko taberna baten ondoan, motxilatik 25 cm-ko laban bat aterez, eta norbaitekin hitz egin behar zuela esanez. Labana lurrean uzteko eskatu zioten gazte batzuek eta labana lurrean uztean, kendu egin zioten. Udaltzaingoa eta Ertzaintza bertaratu ondoren, gizona atxilotu zuten. Otalora joan aurretik, Grupo San Juanen istiluak egon omen ziren.



**Hartu eguzkia erantzukizunet: erabili eguzki kremak**

Erredurak, garaiz aurretik larruazala zahartzea... eragin latzak izan ditzake zure azalarentzat. Eguzkiaren gandik babesteko lagunik onenak dira eguzki kremak.

**%10 deskontua eguzki kremetan**

**Abuztu osoan zabalik!**

Ordutegia: 09:00-18:30

**EZ AHAZTU**

- Eman krema eguzkia hartu baino ordu erdi lehenago
- 2 ordura berriz krema eman
- Saihestu eguzki izpiak 11:00etatik 14:00ra.

Bixente Ferrer, 1  
ARRASATE  
943 79 52 17

**LIRAIN**  
ESTETIKA-ZENTRUA

Egubakoitzean amaitu behar zituzten aurtengo Leze Txikiko indusketetako lanak, baina hara

gerturatuta, azken unera arte lanean harrapatu genituen Alvaro Arrizabalaga eta haren ardu-

rapear dabiltsan ikasle eta adituak; Leze Txikiko kobaren, eta orokorrean arkeologiaren gai-

nean egin dugu berba EHuko irakasle eta Aranzadiko arkeologoaren logoarekin.

**Alvaro Arrizabalaga > Aranzadiko arkeologo eta EHuko irakaslea**

# "Hemen ez gara konturatzen Leze Txikik zelako balioa duen; kanpoan bai"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Alvaro Arrizabalagak (Oñati, 1965) historiaurrea irakasten du EHUn. Ekainean eta uztailean, beriz, orduak ematen ditu Leze Txikin, indusketak egiten -hamahiru urte daramatzate Aita Barandiaranek hasi zituen lanei jarraipena emanen-. Klaasean baino gusturago ibiltzen da kobazuloan; dagoeneko amaitu dituzte aurtengolanak, egubakoitzean batu zuten dena.

**Amaitu dituzue aurtengo lanak, baina azken unera arte aprobetxatu duzue azken egunotako aurkikuntzekin lan egiteko; zelako balorazioa egiten duzue?**

Oso balorazio ona. Aurtengoa Leze Txikin egiten dugun hamahirugarren ekitaldia izanda, eta urtetik urterera materialen dentsitatea geroago eta handiagoa da. Eta hori ez da sorpresa izan, aztarnategi arkeologikoa zelan antolatuta dagoen ikusita bagenekeiako geroago eta gehiago sakondu, aurkikuntzak aberatsagoak izan behar zirela.


**Indusketa lanak harrira, haitzera, iristen zaretenean amaituko dituzue. Tarte horretan, zer aurkitzeko itxaropena duzue?**

Bai, gure helburua hondoia jotzea da, hau da, harriraino iristea, eta tartean dagoena ikertzea. Iaz Barandiaran iritsi zen leku-raino iritsi ginen iaz. Horrek esan gura du ordura arte bagenkiela kronologikoki ze sasotan genbiltzan; hau da, sare moduko bat geneukan, baina orain sarerik ez duten trapezisten moduan gabiltza. Geroago eta gehiago sakondu antzinatasun handiagoko mailetan ibiliko gara; espero dugu maila horietan aurkikuntza arkeologiko gehiago egitea, baina hortik aurrera ezin dugu gehiago zehaztu.

**Beste gizaki baten arrastoak topatzea pelotaza izango litzateke.**

Bai, hori izango litzateke aurkikuntza gorena. Aurreikusten dugu datozen indusketetan animalia gehiagoren arrastoak topatuko ditugula; zorte apur batekin harrizko tresnak topatuko ditugu, eta zorte handiarekin beste gizaki baten aztarnak; sekulakoa izango litzateke hori.

**Dena dela, hemen daukaguna kanpoan baloratzen dute gehiago.**



Alvaro Arrizabalaga egubakoitzean, azken aurkikuntzei erretratuak egiten.

XABIER URTZELAI

## KOMUNIKABIDEAK

**"Azken urteotan Leze Txiki, gutxienez, birritan azaldu da National Geographic-en"**

Hala da, bai. Gu batera eta bestera ibiltzen gara, museoak bisitatzen. Hala, Dusseldorf hirian -Alemania- dagoen neardentaleko museoan mapa handi bat dago, eta bertan Leze Txiki azaltzen da, eta Europako beste hainbat museotan ere gauza berta gertatzen da. Beste adibide bat jartzearren,

## GARRANTZIA

**"Europako hainbat museotan dauden mapetan Leze Txiki azaltzen da"**

azken urteotan gutxienez birritan azaldu da Leze Txiki *National Geographic*-en, eta arrasatear askok jakin ere ez dakite hemen aztarnategia dagoenik. Neurri batean, komunikabideok ere izango dugu horretan erantzukizunik.

## AURKIKUNTZAK

**"Zerbait aurkitzerakoan sentitzen dena berezia da; aurkikuntzak milaka urte egin ditu zure zai"**

Baina ez bakarrik zuek. Ez dago heziketarik, eta seguruenik, gure errua ere bada. Hau da, ez gara gauza behar adina komunikatzeko, edo ez dugu horretan asmatzen. Baina bai, hemen daukagunari garrantzia handiagoa ematen zaio kanpoan Euskal Herrian baino.

**Ekainaren 30ean hasi zenituzten aurtengo lanak. Zer topatu duzue denbora tarte honetan?**

Zenbakitan esateko, mila hezur inguru aurkitu ditugu. Gehienak hartz hezurak dira, baina badaude auntzarenak, katamotzarenak, azeriarenak... gainera, hemengo hezurdurak oso egoera onean egoten dira.

**Adituekin batera aurten ere hainbat ikasle izan dira indusketa lanak egiten. Eskaera handia izaten duzue?**

Oso handia, ikasle batzuk kanpoan geratzen dira. Lehenengo EHU barruan deialdi itxia egiten dugu, eta horrekin batera, hitzarmena daukagun beste universitatera ere bidaltzen dugu eskaintza, Leongo universitatea, esaterako.

Etxean daukaguna baloratzen ez dugula erakusten duen beste datu bat. Nire ikasleek, lantildearen %20a baino ez dute osatuko, gainontzekoak kanpotik etortzen zaizkigu.

**Zeu irakasle izanda, alde ona egongo da eskolak ematen egon edo indusketa lanak egiten ibiltzearen artean. Non gusturago?**

Indusketa lanetan, duda barik. Arkeologo batzuk labortegian ibiltzen dira gusturen, beste batzuk kabinete-lanak egiten moldatzentz dira ondoen, eta badiarra, baita ere, landa-lanean gusturen sentitzen direnak ere. Ni azken talde horretan sartzen naiz. Irakaslea saiatzen da eskolak ahalik eta ondoen ematen, baina irakasle batendako ikerketa lanak ere garrantzitsua izan behar du.

**Zerk bultzatzen du gazte bat arkeologia ikastera?**

Galdera ona. Lanbide hau bokaziozkoa da, eta esango dizuet Leze Txikitik pasa direla arkitektoak, zuzenbidea ikasten zebiltzak, ingeniarriak, medikuak, antropologoak, kazetariak... eta baita universitateko titulurik ez zeukanenak ere. Lan aditiboa da, jendea berehala *engantxatzen* da, eta seguru nago eskuetan grabagailua izan beharrean aitzo bat izango bazenu, lehenengo egunean ez, baina bigarrenean gozatu egingo zenukeela. Zerbait aurkitzen denean oso sentipen berezia izaten da, aurkikuntza horrek milaka urte egin ditu zure zai.

## oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA

### > Hainbat gazte txartel ateratzeko aukera

Aukera dago Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen hainbat gazte txartel eskatzen: osta-tu hartzeko, museoak bisitatzeko edo merkeago erosteko aukera ematen dute. Aterpeki-de txartela, Ikerketa-ISIS, Irakasle-ITIC, Gazte-YTIC eta Gazte Txartela dira. Argibideak, [www.gazteakera.euskadi.net](http://www.gazteakera.euskadi.net) webgunean.

BERGARA

### > Gazte Informazio Gunearen ordutegia

Gazte Informazio Guneak honako ordutegia du uztailean: 11:00etik 14:30era eta 15:30etik 19:00etara. Abuztuan itxita egongo da. Errrotalde jauregian dago gune hori.

ARRASATE

### > San Josepeko harrobi-rako ideia lehiaketa

Arrasateko Udalak gogorazten du irailaren 30a arte dagoela zabalik San Josepeko harrobiaren ideien lehiaketan parte hartze-ko epea. Proposamena aurkez dezakete lehiaketan aurrez izena eman-da dauden pertsona eta enpresek.

BERGARA

### > 1942an jaiotakoek, Bilbaoa irteera

1942. urtean jaiotako bergararrek Bilbaoa irteera egiteko aukera dute irailaren 27an. Egi-

tarau zehatza jakinara-ziko dute antolatzaleek. Argibideak: 943 76 45 13 (M. Tere).

ANTZUOLA

### > Antzuolarrek, oporrak kontatzeko aukera

Udalaren eskuak, antzuolarrek herritik kanpo pasatutako oporrak kontatzeko aukera izango dute irailean eta urrian. Olaran etxeen. Horretarako, interesa dutenek Kultura batzordearekin jarri behar dute, eta eurek eman-dia antolatuko dute. Kontaktua: [kultura@antzuola.net](mailto:kultura@antzuola.net) edo 943 76 62 46 zenbakia.

ARRASATE

### > 1958an jaiotakoek ospakizuna egindo dute

1958an jaiotako arrasatearrek kinto ospakizuna egongo dute azaroaren 8an, Baster-Alde jatetxeen, eta dagoeneko badago izena emateko parada. Horretarako, 60 euro sartu behar

ARRASATE

### > KZguneko uztaleko ikastaroak bertan behera geratu dira, eta irailean izango dira hurrengoak

Arrasateko KZguneko arduradunek ohartazi nahi dute uztailerako aurreikusita zeuden ikastaroak bertan behera geratu direla. Hurrengoak irailekoak izango dira: *Bat-bateko mezularitzeta* eta *Eustat* izango dira lehenengoak, irailaren 4an. Argibide gehiagorako, deitu 943 79 35 54 telefonora (Idoia).

943 25 05 05  
[goinkaria@goiiena.com](mailto:goinkaria@goiiena.com)

dira Euskadiko Kutxa-ko honako kontuan: 3035 0001 57 0010112788.

ARRASATE

### > Bizkaira irteerarako txartelak, gaur

Abaroa erretiratuen elkarteko kideek Bizkaira irteera egiteko aukera dute uztailaren 23an, eguztina. Meaztegi Golfjatetxeen hamarretako osoa egingo dute, La Arboledan eta Santurtzin denbora librea izango dute eta Enekuiko Montenegro jatetxeen bantzalduko dute. Itzuleran, Bilbon geldialdia egingo dute. Lekuak geratu baldin badira bete barik, Arrasateko gainerako erretiratuen elkartekoek har ditzakete. Txartelak gaur, astehena, jaso behar dira.

BERGARA

### > Urdaibain kanoa zeharkaldia egindo dute

Udalak antolatuta, Urdaibain kanoa zeharkaldia egiteko aukera

dute gaztetxoek, eta etzi, eguztina, bukatzen da izenemate epea. 12 eta 18 urte artekoendako da irteera hori; 20 euro ordaindu behar da, eta 50 lagunendako lekuak dago. Argibideak, 943 77 91 60 zenbakian.

ARRASATE

### > Mediterraneoan itsas bidaia ordaintzeko

Abaroa erretiratuen elkartea jakinarazten du irailaren 15etik 22ra Mediterraneoan egingo duten itsas bidaian lekuak duten guztiak bidaia osoa ordaindu behar dutela uztailaren 30a baino lehen.

OÑATI

### > Natura ibilbide gida-tuak egiteko aukera

Honako ibilbideak egongo dira datozen egunetan: Arantzazu erreka eta kobazuloen inguruoa (uztailak 26) eta Iturrigorriko basoa eza-gutzekoa (uztailak 27). Lau ordukoak dira, zailtasun maila ertainekoak, eta 5 euro da prezioa. Izena emateko, deitu 943 78 34 53 telefonora (turismo bulegoa).

BERGARA

### > San Martzialen gaine-ko erakusketaren pdf-a

Orain dela gutxi arte Bergarako Aroztegi aretoan egon den *San Martzialgo erromerixia* dela-ko erakusketaren irudiak pdf formatuko artxibo baten eskura daitezke: [bergarakoartxiba.net/servicios](http://bergarakoartxiba.net/servicios).

## etxeko leihotik



Inazio Arregi > [zuzen@goiiena.com](mailto:zuzen@goiiena.com)

## Euskararen ingurukoak

K alean da dagoeneko 2006ko inuesta soziolinguistikoa eta bere datu zaparrada. Botila bezala, batzuetan erdi betea besteetan erdi hutsik. Inuesta Euskal Herri osoran egin da eta espero zitekeen bezala hainbat datu kezkagarri agertzen dira. Emaitzen arabera, Iparraldean ez da oraindik euskararen beherakada geratu, eta 16-24 urte bitarteko gazteek dira gutxien ezagutzen dutenak. Ez dago gazteagoei buruzko daturik. Hau kezkagarria bada, ez da gutxiago ikustea Nafarroako biztanleen %34,2ak euskararen aurkako edo oso aurkako jarrerek azaltzen dituela.

EEAri dagokionez, gora egin du erabilerak eremu formaletan, anbulatorioan, udal zerbitzu eta abarretan, baina ez du proportzio berean egin etxe-ko giroan. Elebidunen %57ak nagusiki euskaraz egiten du udal zerbitzuetan eta %40ak anbulatorioan. Etxean %45ak egiten du euskaraz nagusiki.

Etxeko erabilerak azterketa berezi bat merezi du. Oraindik orain, elebidunen artean, bikotekidearekin euskaraz nagusiki egiten dutenak %48a baino ez dira. Gehiago edo gutxiago kostako da zerbitzu publikoak edo enpresetakoak euskaraz jartzea, borondate eta diru kontua da eta. Baina nola aldatzen da gertukoaren berba egiterakoan euskaldunek gaztelera aukeratzeko ohitura?

**> Gazztelera.** Inguru honetan ez da ulertzan Savater eta bere lagunen gazteleraren aldeko kanpaina. Spainiar estatuko mila biztanletik hiruk baino ez du izenpe-tu manifestua. Kezkatze-ko moduko emaitza.

### "Hainbat datu kezkagarri dira inuesta soziolin-guistikoan"

**> Oporrak.** Udako oporrak iritsi zaizkigu ia konturatua gabe. Hilabeteko oporrak hartuko ditu gure hedabide honek. Nik ere bai. Ondo pasa eta gutxi gasta, familien ekonomia ez dago txantxetarako eta.

## debagoiendarrak kanpoan

Ander Urizar > Aramaio

## "Ondo moldatu naiz Madril hirira; ez ordea, infernuko bero honetara"

JOKIN BEREZIARTUA > ARAMAIO

Ander Urizarre (Aramaio, 1980)

Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan egin zituen ingeniaritza ikas-tek. Orain Madrilen dago, maiatzean lurreratu zuen bertan. Bidaitea du zaletasun nagusi -nola ez-baina zinema, antzerkia, mendia eta hirian galtzea ere gustatzen zaio. Eta, noski, baita lanegun luze baten osteko estresagainetik kentzeko zer-beza bat -edo bi- hartzea ere.

Denbora gutxi daroazu Madril-en. Nola bukatu duzu han?

Londresen nengoea lan eskaintza bat egin zidaten eta bertan oso gustura egon arren, lan elkarriketara aurkeztu nintzen. Frogak gainditu eta lana eskaini zidaten. Hala, Londres utzi eta hona etorri nintzen, IBM enprese-ra. Lana, baina, ez zen nire etorre-

raren arrazoi bakarra izan. Beste hiri batera joateko asmoa nuen eta Madril ezagutzen nuenez, aukera ezin hobea iruditu zitzaidan.

Ondo moldatu zara hirira?

Bai. Ni edozein tokitara nahi-ko erraz moldatzen naiz eta leku bakoitzaren alde onak ikusi eta txarrei garrantzia kentzen saiatzen naiz. Gainera, hiri handiak oso gustuko ditut, ematen dituen aukera amaigabeengatik. Hala ere, herri txikietan dagoen jendearen arteko gertutasuna fal-tan botatzen da hiri handietan.

Jendearen arteko gertutasun falta horretaz gain, zerbait gehiago botatzen al duzu faltan?

Bai, noski. Batez ere familia, eta bisitan hain gutxitan etortzen zaizkidan nire lagun *petralak!*



ANDER URIZAR

### Aspertzeko unerik ez

Lanak denbora asko kentzen dio Ander Urizarri; bere aisiar, baina, Madrilek ez dio aspertzeko tarterik uzten

Zure jendearekin gutxi egoten bazara ere, komunikatuko zara eurekin. Nola?

Familiarekin telefonoz eta posta elektronikoz. Lagunekin, bestalde, nahi baino askoz gutxiago komunikatzen naiz. Bestalde, Edinburgo eta Londresen egin ditudan lagunekin Facebook-aren argazkiak eskegi eta mezuak bidaltzeko interneteko ataria-bitarte jartzen naiz harremantean.

Nolako da zure egun normal bat Madrilen?

Goizeko zortzietako lanean egoten naiz. 13:00etan ordubeteko tarteetan daukat bantzalzeko, eta lan-kideekin joaten naiz bantzalzera, inguruko jatetxeetara. Lana amaitu ostean, egunak eskaini dezakeen gozatzen saiatzen naiz.

Konta iezaguzu ba nola gozatzen duzun zure aisiaidiaz.

Asteburutan Madrilek irte-ten saiatzen naiz. Madril inguru-ko mendietara joatea oso gustuko dut. Bestalde, hiriko igerilekuak oso masifikatuta daudenez, inguru-lakuetara joaten gara, bainu bat hartu eta lasaitasun apur bat arnasteko. Gauetan ere hiriko kaleetan barrena bueltatxo bat ematea ere gustatzen zait.

Zein alde on ditu Madrilek? Eta alde txarrak?

Alde onen artean, kultura aniza-tasuna eta hiri handi orok eskaini-dizuna; beti dago zer egin eta zer ikusi. Bestalde, bi alde txar-nagusi aipatuko nituzke: infernu-ko zuloan baino bero gehiago egiten duela eta etxeen alokairuak oso garestiak direla.

**kale inuesta****Badaukazu zure herriko turismo bulegora joateko ohiturarik? Beste herrietakoetara?**

**Enrike Anton**  
Erretiratua  
Bergara



**Jone Telleria**  
Langilea  
Bergara



**Juantxo Jimenez**  
Langilea  
Bergara



**Maria Jesus Valle**  
Langilea  
Bergara

Inoiz ez naiz joan herriko turismo bulegora, ez dut beharrak izan eta. Beste herri bat bisitatzeera joaten naizenean joaten naiz bertakoetara, leku bakoitzean interesgarria den hori ikusi ahal izateko.

Herriko turismo bulegora joan izan naiz pare bat aldi, eta bertan eman dizkigunen triptikoetan herriko gune garrantzitsuenak agertzen dira. Kanpora joaten naizenean, berriz, joan izan naiz tokiko mapa eskratzeko eta egin daitezken bidaiez informatzeko.

Non dagoen dakidan arren, ez naiz inoiz joan bertara ez dut beharrezko ikusten. Beste herriren batera joaten naizenean, berriz, joan izan naiz tokiko mapa eskratzeko eta egin daitezken bidaiez informatzeko.

Joaten naiz herriko turismo bulegora. Kanpoko lagunak etortzen badira, bertan erakutsi diezaiokegun garrantzitsuena den jakiteko. Beste herrietara joaten naizenean, joaten naiz bertako turismo bulegoetara.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

[goinenkaria@goinena.com](mailto:goinenkaria@goinena.com)

BERGARA

**> Agorrosingo ordutegia**

Agorrosin Ekintza Guneko bazkide batek deitu digu, esateko oso ideia ona iruditzen zaiola, udako aste bukaeretan, eguerdian, kirol instalazioa ez ixtea. Haren ustez, ordutegi hori urte osoan mantendu beharko lukete, jendeak asteburuetan izaten duelako kirola egiteko denbora gehien. Bestalde, aste barruan, 22:00etan ixten dituzte igerilekuak, baina zenbaitetan askoz ere lehenago jendea etxera bidaltzen hasten direla dio, eta behin baino gehiagotan, aldatzen ari zirela, kendu dietela aldageletako argia.

DEBAGOIENA

**> Gurean ez dago bizikleta zentrorik jartzeko asmorik?**

Oñatiar batek zera galdu du: "Ibarrean antolatzen dituzten mendiko bizikleta irteerak zenbat eta zelakoak diren ikusita, hemen ez dago btt zentrorik jartzeko asmorik?". Orain dela gutxi jarri dute Elgoibarren horrelako zentro bat, eta egia da geroago eta jende gehiago ibiltzen dela horrelako bizikletetan. Turismoa erakartzeko beste bide bat izan daiteke.

ARRASATE

**> Saihesbidea, geroago eta arriskutsuago**

Aste barruan Eskoriatzatik Bergarara egunero joaten den herriko batek salatu du Arrasateko saihesbidea geroago eta okerrago dagoela, arriskutsu. "Konpontzeko-edo galipota bota zuten zuloiak zeuden lekuak, eta mesede baino kalte egin du horrek".

**usteak uste**

Arantzazu Ezkibel

**Muxutrak  
ian ittia**

Zapatuan Matxiategin egon nintzan San Marina sariko lasterketak bukaeria ikusten. Antolatziale taldekin berbetan neuela batek esan noztan lasterketak eta bestelako kirol ekitaldixak antolaketan bea mouko burusoilak bakarrik ibiltzen diala. Eta, arrazoik ez xako falta.

Gaineratu noztan, Bergara moduko herri "haundixetan" zaila izaten dala jendia topaitza; berriz, herri txikiñauetan samurraua izaten dala.

Ikusi besterik ez dau kirol elkartietan zenbat buruhauste eukitten dauein jendia topaitzea. Guk kirola ezer ordaindu barik itteko aukeria euki du. Herrixan, bertan. Baina, gure ondorenguek? Ordaindu in biharko daue elkarre baten sartzeiarren? Zerbait pentsatzen hasi biharko gara...

**EPO eta agur**

"Riccardo Ricco Foixearen prokuradorearen aurrean deklaratu zuen atzo. EPOaren positibo eman duen txirrindulariaren azalpenak aditu ondoren, aske utzi du, baina sustantzia pozoitsuak edukitzeagatik inputatu du."

Berria, 2008-07-19

Nire mitologia txirrindularian Zoetemelk, Van Impe, Thevenet eta horrelako santuak daude. 40 urtetik behera dagoenei guztiz ezezagun egingo zaie izen hauek. Asko aldatu dira gauzak kirol honetan, eta txarrerako aldatu ere.

Ordura arte, esaterako, modu tragicano bukatzen ziren ziklistak epikotasunaren izenean hiltzen ziren: hor dago Tom Simpsonen heriotza Aubisque mendian gora, poemak eta kantak egiteko gaia eman zuena. Txirrindulariaren azken garaian, berriz, modu lohian zenu dira batzuk, *narkorrido* protagonistak legez: Pantani eta Jimenez, kasu.

Garaiaren aldaketaren beste seinale bat porren eboluzioena izan da; lehen lagunartekoak izaten ziren, orain, ia profesionalak.

Ni neu txirrindularitzen garai mitikoan gelditu nintzen, txirrindularitza egunkarietako gertaera atalean oraindik agertzen ez zen sasoi hartan. Armstrong, nahiz eta oso gustuko ez izan, apur bat jarraitu dudan azken izarra izan da;

hortik aurrera, deus ezer. Zaila da oso, bestalde, oraingo bi gurpileta-ko izarrei jarraipena egitea: gaur podiumean daude eta bihar giltzapean; gaur horiz jantzita eta bihar, aldi, traje marradunarekin. Ez dakit errua eurena edo zeinen den, baina badirudi lehengo toreroak oraingo txirrindulariak direla: edozein gauzitarako prest, arima saltzeko ere, dirua eta ohorearen truke.

Badaramatzagu makina bat urte horrela, baina gauzak ez dira zuzentzen; alderantzik baizik. Eta ez dut ulerzen nola, oraindik, taldeen sostenguan sosak inbertitzeko prest dauden enpresak agertzen diren. Publizitatea baino, kontrapublizitatea lortzen dute eta. Begiratu bestela Saunier Duval, azken kasua bakarrik aipatzearren.

Eta ez noa ni esatera beste kiroletan ez dagoela dopinik, EPOrik ez dagoela. Tentuz ibili, Txinako Joko Olinpikoak hastear daudela eta...

Oharra: azken bi urte t'erdian, behin ere huts egin gabe, hilean behin edo birritan zutabegile ibili naiz txoko honetan. Niretako plazera hutsa izan da, baina agur edo gero arte, batek daki, esateko garaia iritsi zait. Hurrengora arte, beraz.

**"Zaila da bi gurpiletako izarrei jarraipena egitea: gaur podiumean daude eta bihar giltzapean"**

**"Badirudi lehengo toreroak oraingo txirrindulariak direla"**

**Goienkaria**

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzu Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendarri nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria: Eneko Azkarate Errredaktore burua Edi Mendibil Errredakzioa Jasone Zubala, Arantza Ezkibel, Xabier Urtzelai Oinarrizko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mirela Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzaran

EGOITZA NAGUSIA  
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goinena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12  
Posta-e: arrasate@goinena.com

ARETXABALETA 20550 Durango 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goinena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goinena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goinena.com

Lege Gordialua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

**Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13  
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> BERGARA  
Eguaztenean onartutako plan orokorraren barruan ez dute sartu Zabalotegiko errepeidea > 11



> OÑATI  
Udalak laguntza eskatu dio Foru Aldundiari autobus geltokiak berritzeko > 12



> LEINTZ GATZAGA  
Eguaztenean egingo du herritarrekin batzarra Udalak projektuen berri emateko > 14

OÑATI > EHORZTETXEA

## Beilatoki berriak oñatiarren beharrak aseko ditu aurrerantzean

### DEBAGOIENA

Arrasaten eta Bergaran daude ibarreko beste beilatokiak

### ZERBITZU OSOA

Hilotza hartu, prestatu eta dotore ipintzea izaten da ehorztetxeen lana

### ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Lanekin hainbat arazo izan osten zenbait hilabetetako atzerape-narekin bada ere, egunean inauguratu zuten Oñatin Moyua ehorztetxeak martxan jarri duen beilatokia. Otadui Zuhaitzian dago kokatuta, eta 365 metro koadro ditu orotara, hainbat gela eta zerbitzu-tan banatuta. Hiru hotz ganbera ditu hilotzak hartzeko, eta baita harrera leku zabal bat ere, familiakoak bertan egon daitezen. Honetaz gain, baditu beste zenbait gela: hilkutxen eta hautsak gorde-ko ontzien erakusketa eta hilotzak prestatzeko gela berezi bat ere bai.

Modu honetan, Oñatin zegoen behar bat bete da. Izan ere, orain arte Oñatitik Arrasateko edo Bergarako beilatokietara eraman behar izaten zituzten gorpuak.

### LEKU LASAIA

Miguel Angel Moyuak adierazi du orain dela sei urte hasi zela Oñatin beilatokia jartzeko lanetan. "Udalarekin eta Diputazioarekin harremanetan egon eta gero, Ota-dui leku ezin hobea iruditu zitzai-dan; lasaia da, eta era berean auto-ak aparkatzeko lekua dago", esan du Moyuak.

Beste herri batzuetako tanato-rioetako hainbat elementu hartu ditu eredu, eta haren berbetan, bilatu duena izan da hildakoen familien erosotasuna eta lasaita-suna. Hala, aparkaleku propioa eta aterpetxo bat ere baditu kanpora irten gura duenarentzat. Leku lasaia dela adierazi du Moyuak.



Eguenean inauguratu zuten Oñatiko beilatoki berria; irudian, On Sabino parrokoa bedeinkapena ematen.

TXOMIN MADINA

### Ehorztetxeen prezioak zerbitzuaren arabera

Ibarreko ehorztetxe guztiak, gutxi gorabehera, antzerako prezioak dituzte. Moyua ehorztetxeko Miguel Angel Moyuak adierazi du 1.500 eurotik hasita beilatokiko zerbitzuak ordaindu daitezkeela. Esan bezala, zerbitzu horiek osoak dira: gorputua jaso eta dotore jarri, eskelak, llorek... Adierazitako prezioa baxuena da; hortik aurrera, familiak gura duen beste ordaindu dezake aukeratzen duen zerbitzuen arabera. Hau da, hilkutxen artean prezio ezberdinak daude; eskelak tamainaren arabera ere prezio ezberdinak daude; eta, llorek ere prezio ezberdinak dituzte. Funeraria Arrasatekoak azaldu dute: "Lore-koroa eta eskelarekin, gutxi gorabehera 3.000 euroko prezioa izan dezake zerbitzuak". Adierazi dute, gure ibarrean, normalean, *Gara, El Correo eta Diario Vascon* jartzen dituztela eskelak. Eskela baten prezioa, gutxienez, 300 eurotik gorakoa da. Bestalde, lora sorta baten prezioa 150 eurotik gorakoa da, baina, koroak garestiagoak dira. Hilotza erraustea ehorztear baino merkeagoa da; gainera, gogoratu Bergarako hilerran kolunbarioak jarri dituztela.

### DEBAGOIENEKO ESKAITZA

Ibarrean Arrasate eta Bergaran daude beilatokiak. Arrasaten, Funeraria Arrasategain, udal beilatokia ere badago. Baina, jende-ak ez du erabiltzen azken aukera hori. Batez ere, beste beilatokietan lekukirik ez dagoenean erabil-ten da Udalekoa. Bergaran, bi beilatoki daude: Euskalduna eta Oroi-

lorena. Funeraria Arrasatekoak azaldu dute, tanatorioetan zerbitzu osoa ematen dela; hau da, hilotza hartu, prestatu eta dotore ipintzen dute. Gainera, eskelak jartzeaz arduratzen dira -egunkarietan eta hormetan- eta lore zerbitzua ere badute. Momentu zailetan familiaren ero-sotasuna bilatzea dute helburu.

Bestalde, hilkutxa aukera zabala eskaintzen dute; eta, hau-tsak gordetzeko ontziak ere badituzte. Azken horiek, hilotza errausten bada erabiltzen dira.

Gainera, hilotza Arrasaten bertan errausteko aukera dago. Funeraria Arrasatekoek esan dute Arrasateko hilerran erraus-ten dituztela hilotzak. "Beste batzutan Gasteizera edo Elgoibarrrera eramatzen ditugu hilotzak; batez ere, zerbait berezia badute. Adibidez, taupada-markagai-lua duen hilotza ezin da Arrasa-ten erraustu eta Gasteizera era-maten dugu", azaldu dute. Momentu zailetan familiaren ero-sotasuna bilatzea dute helburu.

AISIA &gt; UDALEKUAK

# Heldu da aurtengo udalekuei merezi duten agurra emateko ordua

Udaleku ireki eta itxiak eta udaixe programa gaur, bihar eta etzi amaituko dira. Ekimen guztiak kontuan hartuz, 400 haur eta gazte baino gehiagok hartu dute parte

**JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE**  
Urtero bezala Txatxilipurdik herriko hainbat haur eta gaztettoxo erakarri ditu. Denetariko ekintzak egin dituzte eta hiru urtetik 16 urte arteko ume, haur eta gaztettoxoak primeran ibili dira. Txatxilipurdik antolatutako udaleku guztiak aintzat hartuta, guztira 400 haur eta gazte baino gehiagok hartu dute parte ekintzetan.

Beste behin ere Txatxilipurdik bete du helburua: txikienei uzailean primerako opor plana eskaintzea, eta ganera, euskaran presentzia bermatzea.



San Fermin egunean entzierro propioa egin zuen Txatxilipurdik, eta udaleku irekian izan diren 300 haurrak korrika baten ibili ziren zezenen atzetik.

TXATXILIPURDI

## AMAIERA EKITALDIAK

Hala ere, aurtengo udalekuak agurtzeko ordua heldu da. Udaleku irekiak, 3 eta 10 urte arteko

umeak batzen dituztenak, bihar amaituko dira, jaialdi batekin. Jaialdi handia izango da, kultura aniztasuna ardatz izango due-

na. Bestalde, udaleku itxiko gaztettoxoak Lekeitio, Zarautz eta Orion edero ibili ostean, gaur bertan helduko dira herrira. Eta

amaitzeko, *udaixe* programan parte hartu dutenek –asteburuan Urdaibain izan ziren– etzi agurtuko dira, akelarre batekin.

HIRIGINTZA &gt; ORTU EKOLOGIKOAK

## Construcciones Galdiano enpresak esleitu du Garagartzako ortu ekologikoen proiektua

Guztira 87 ortu egingo dituzte eta obra guztia egitea 465.500 euro baino gehiago kostako da. Obrek bi hilabete iraungo dute

alitate bihurtuko dela. Izañ ere, Obra Saileko iturriek emandako informazioaren arabera, obrak abuztu amaieran edo irail hasieran hasiko dira. Eta behin hasita, pare bat hilabetean bukatuko dituzte. Beraz, urri bukaerarako ortuek amaituta beharko lukete.

### HASIERAN BAINO ORTU GEHIAGO

87 ortu ekologiko egingo dituzte, hasieran uste zituztenak baino 16 gehiago. Izañ ere, hasieran udalak 61 lursail egokitzea adostu zuen, baina jaso diren eskakizunak ikusita –guztira 160 eskaera baino gehiago jaso dituzte– ortu

gehiago egitea pentsatu dute. Hori bai, ortuok hasieran adostu baino txikiagoak izango dira, eta bakoitzak 50 metro koadro izango ditu. Ortuak batera, aldagelak jarriko dituzte, ortuen erabiltaileentzako. Bestalde, ura batzeako biltegiak eta ongarriak gordetzeakoak ere egingo dituzte eta baita argindarra sartuko ere.

Behin eginda, ortuak herritarren artean banatuko ditu Udalak. Baina oraindik ez du erabaki zela; urrirako finkatuko dituzte ortuen banaketarako irizpideak. Obrak bukatzen dituztenean, hain zuzen.

## > AZPIEGITURAK

### Ezker Batuak Epeleko biribilguneko harriak kentzeko eskatu dio Bide Azpiegiturako Sailari

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Ezker Batua Berdeak taldeak GI-627ko Epeleko biribilguneko harri puska "arriskutsuak" kentzeko eskatu dio Bide Azpiegituretan Sailari, "motoristen edo txirrindularien kalterako" izan daitezkeelakoan.

Ezker Batuak Berdearen ustez biribilgunean dauden hortitzurako harriak "oso arriskutsuak dira motoristentzat", are gehiago "istripuren bat gertatu eta hegan irtenez gero".

## > EUSKARA

### Emun taldeak euskara naturaltasunetan eta eroso mintzatzeko ikastaroak emango ditu

Telp deritzen metodoaren bitarbez, Emun euskara taldeak euskara naturaltasunetan eta eroso mintzatzeko tайлerrak emateko kampaña ari da aurrera eramatzen. Telp metoda hizkuntza kontzientzia duten hiztunei dago zuzenduta, euskara bizitzeko ahalegina egunero berritzen dutenei, hain zuzen. Gipuzkoa mailako ekimena da, eta oraindik ez dute zehaztu gurera noiz helduko den.



**MEMESA**  
INDUSTRIA HORNIDURAK

*Euskadiko erreferente nagusia industria horniduran*

UDALA > PLAN OROKORRAREN ONARPENA

# Plan Orokorrean ez dute sartu Zabalotegiko errepidea

Plan orokorrik bere baitan hartzen duen beste aldaketa bat Uberako saihesbidea da

Zabalotegiko errepidearen alternatiba iraileko bileran zehaztuko dute

JASONE ZABALA > BERGARA  
Eguaztenean, uztailak 16, ez ohiko osoko bilkuran onartu zuten Plan Orokorraren hasiera onartzea. Aho batez onartu zuen udalbatza osoak.

## BI ALDAKETA NAGUSI

Bi aldaketa nagusi ditu Plan Orokor berriak: Zabalotegiko errepidea eta Ubera auzoko saihesbidea. Aho batez onartutako Plan Orokorrak ez du jasotzen Zabalotegiko errepidea, eta bai Uberan bariante edo saihesbide bat. Lehen aldaketa garrantzitsua horretan, gobernuan dauden bederatziz zinegotziak ados agertu ziren. Zabalotegiko errepideari buruz zera adierazi du Agurne Barruso alkateak: "Ez gara inoiz errepidearen alde egon, eta garestiegia iruditzen zaigu erdigunea oinezkoendako uztea berdeguneak kentzearen truke. Mugikortasun Planak emandakoarekin alternatibak aztertuko ditugu; gure helburu nagusia alde zaharra oinezkoendako bihurtzea da".

Zabalotegiko errepide horri alternatibak topatu nahirik irail hasieran bilera bat egindo dute. Esku artean darabilten alternatibetako bat eta Barrusok adierazi digunez, Ibargaraiko errepidea Masterrekaino bi norabideko ikastea da. Orain bi norabide Irizar kalea eta Ibargarai gurutzatzen diren punturaino da. Hasiera batean, baina, trafikoaren diagnostiko bat egingo



Plan orokorraren hasierak ez du bere baitan jasotzen Zabalotegi kaleko errepidea.

JASONE ZABALA

dute. Bigarren aldaketa garrantzitsua, Uberako saihesbideari dagokiona da. Alkateak garbi utzi gura izan du, planoetan esku-mako aldean ikusten dela Uberako bariantea, baina ez dela binukulantea, hau da, ez dela zertan

hortik pasa behar. Gaineratu du, Udalak konpromisoa hartu dueña, Aldundiak eskatuta, Uberan saihesbidea nondik egin daitekeen aztertzeko, ezkerretik edo eskumatik eta zein puntutik zein puntura.

ZER EGIN BEHAR DU ALEGAZIOAK AURKEZTU NAHI DUENAK?

## Alegazioak irailaren 19ra arte aurkez daitezke

Plan Orokor horren gainean alegazioak egiteko epea irailaren 19a arte egongo da zabalik. Agurne Barrusok adierazi digun bezala: "Legeak hilabeteko epea markatzen du, baina abuztua tartean dagoenez eta jende asko kanpoan egongo denez egokia ikusi dugu irailera arte luzatzea". Barrusok azaldu du, Plan Orokorra ikusi nahi duen edonor bulego teknikora zuzendu daitekeela, bertan baitago dokumentazio guztia; horren gainean zalantzak dituen edozein herritarrei Udalak emango diela erantzuna. Behin alegazioak epea amaituta, aurkezten diren alegazioei erantzungo die Udalak, eta Plan Orokoreko zati horrek egokituko dira. Ondoren osoko bilkurrara eramango da, eta behin behineko onarprena emango zaio. Hemendik, Eusko Jaurlaritzara bidaliko dute. Jaurlaritzak hiru hilabeteko epea izango du Plan Orokor horri bere oniritzia emateko edo berak egoki ikusten dituen alegazioak aurkezteko. Epea hau pasa ondoren, alegazioak jasoko dira, berriz ere Plan Orokorra landuko da, eta azkenik, behin betiko onarprena emango zaio.

## ALDERDIEN ERREAKZIOA

EAJ alderdiak Plan Orokorrari baiezkoa eman dio, baina zehaztapen batzuekin. German Muruamendi arazek esan digun moduan: "Zabalotegiko errepidearen alde jarraitzen dugu. Uste dugu etorkizunean hori dela herriarendako irtenbide onena. Gobernuak dio garestia dela, baina merkeak izateak ez du esan gura ona denik. Gainera, diote horri alternatiba bat bilatu behar zaio-la, baina ez dute esaten zein den aukera hori, eta horrek ez du balio, alternatiba erakutsi behar dute". Lauri Askargort EAko zinegotziak bestalde, esan du berak ere errepidearen beharra ikusten duela, alternatiba ezaren aurrean. PSE-EE alderdia ere ados azaldu da Plan Orokorraren. Aralarrek, bestalde, adierazi du, alegazioak aztertzen hasi zirenean partehartzea indartu nahi zutela, eta horrela izan dela eta pozik daudela.

> JAIAK  
**Datorren egunen hasita, Basalgo auzoko jaiak**

Herriko auzo ezberdinak jaientan murgildurik dabilta azken asteotan. Horrela, egunean, hilaren 24an, Basalgo auzoan Santiago jaiei emango zaie hasiera. Jaien hasiera iragartzeko, 18:30ean kampai-jotzea eta etxafuego botatzea egongo da; ondoren, makala jasotzea.

> IRTEERAK  
**Abuztuaren 6an, Urdaibaira kanoan zeharkaldia dago**

Abuztuaren 6an, 12-18 urte bitarteko gaztetxoendako Urdaibain kanoa zeharkaldia antolatu du Udalak. Zeharkaldiaren ostean, arratsalde pasa Laga edo Laidako hondartzara joango dira. Irteera honen prezioa 20 euro da. Izena emateko azken eguna uztailaren 23 da, Kultura Etxean.

> KINTADA  
**1942an jaiotakoek irteera egingo dute Bilbo aldera irailean**

1942an jaiotakoek irteera izango dute datorren irailaren 27an Bilbora. Orain arte, urte horretako kintoen komisioan daudenek, hori aurreratu dute bakarrik, baita bazkaria elkartea baten izango dela. Abuztu amaieran egingo duten beste bilera baten zehaztuko dute ordua eta lekua.

> DIRU LAGUNTZAK  
**Kultura talde eta elkarreendako diru-laguntzak Udalak**

Udalak kaleratu ditu irabazi asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2008 urtean gartuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak. Eskaerak astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara, aurkeztu ahal izango dira, Udaleteko Erregistro Orokorean.

## Kayak Taberna Abuztuan eguneko menua

Terraza ederra, sekulako giroa!

Parking ederra

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11



- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitardekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak



Unibertsitate Etorbideko markesina berritzeko lagunza eskatu dute.

MIREIA BIKUÑA

**ZERBITZUAK > LANAK**

# Herriko autobus geltokiak berritzeko laguntzak

Zubillaga, Olabarrieta eta Unibertsitate Etorbideko geltokiak egokitzeko lanak egiteko lagunza eskatuko dio Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Herriko hainbat autobus geltokietan berrikuntza lanak egin ahal izateko lagunza eskatuko dio Udalak Diputazioari. Hain zuzen ere, Zubillagako eta Olabarrieta eta Unibertsitate Etorbideko autobus geltokiak egokitzeko lagunza eskatuko dute.

Zubillaga eta Olabarrieta lantegietan –auzo bakoitzean bi geltoki–, informazio zutoinak jarri gura ditu Udalak. Bestalde,

Unibertsitate Etorbideko autobus geltoki nagusian dagoen markesina berritu gura dute. Baina, Diputazioak garatutako markesina jarri ordez, egun dagoen zurezko markesinan hobekuntza lanak egitea proposatuko dio Aldundiari; besteak beste, geltoki horretan jartzeko diseinatu zuten-eta. Lanok egiteko ia 21.000 euroko aurrekontua egin du Udalak, eta orain lagunza eskatuko dio Diputazioari.

**BIDAIARIEN LINEA ERREGULARRAK**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren bidaiaiaren errepideko linea erregularretako autobus geltokiak berritzeko hainbat lagunza emango ditu; hain zuzen ere, Diputazioak garatutako markesina bakoitzeko 18.000 euro; beste eredu bateko markesina bakoitzeko 10.000 euro; seinalizazio zutoin bakoitzeko 5.000 euro; eta bazterleku bakoitzeko 9.000 euro.

&gt; ZIGORRAK

## Lehen bost hilabetetan 450 isun jarri dituzte udaltzainek

Ibilgailuak gaizki aparkatzeagatik jarri dituzte isun gehien urtarriletik maiatzera arte. Hain zuzen ere, 450 isun jarri dituzte, eta haietatik 345 gaizki aparkatzeagatik; bigarren ilarran, espaloi gainean edo oinezkoen pasabidean aparkatzeagatik.

Udaltzainek emandako datuen arabera, Portu, Bidebarrieta, San Anton, Ultzegin, Aita Madina eta, batez ere Atzeko kalean jarri dituzte isun gehien. Dena den, gehienak, isun arinak izan dira, hau da, 30 eta 100 euro arteko zigorrak.

&gt; IBILALDIA

## Aste bukaerako mendi irteera Pirinioetara Aloña Mendirekin

Oporrak hartu aurretik, aste bukaerako irteera antolatu du Aloña Mendi mendi taldeak. Hain zuzen ere, Neouville Erre-serbara egingo dute egubakotzean, zapatu eta domekan. Horren harira, izena emateko azken eguna eguna izango da, Aloña Mendi tabernan.

Barikuan, Baregesetik abiatuta Col de Madamete zeharkatuko dute Oredon eta Aumarreko lakuetara iristeko. Zapatu eta domekan Col de Bas-tanet zeharkatuko dute La Montgie ingurura iristeko.

&gt; LANPOSTUA

## Kultura etxeko zinema aretoan lan egiteko pertsonak behar dituzte

Oñatiako zinema aretoaren kudeaketaz arduratzen den empresak pertsonak behar ditu kultura etxeko zinema aretoan lan egiteko. Interesatuek bete beharreko baldintzak dira: aste bukaeratan lan egiteko prest egotea eta euskaraz jakitea. Izena kultura etxearen eman behar da egunea baino lehen. Bestalde, *El Orfanato* filma izan da ikusle gehien izan duena aurten; hain zuzen, 363 ikusle. Aitor Arregiaren *Lucio* filmak 324 ikusle izan zituen. Zinema denboraldi berria irailean hasiko da, eta zineklub denboraldia, urrian.

**AISIALDIA > TURISMOA**

# Irteera Arantzazu erreka eta kobazuloak ezagutzeko

Zapatuan egingo dute lau orduko natur ibilbide gidatua Natur Eskolako irakasleekin

M.B. &gt; OÑATI

Natur ibilbide gidatuen irteera berriak egingo dituzte zapatuan eta domekan; hain zuzen, Arantzazu erreka eta kobazuloak, eta Iturrigorriko basoa ize-nekoak.

Turismo Bulegoak antolatu, eta Natur Eskolako irakasleek gidatuko dituzten ibilaldiak lau ordukoak dira, eta zaitasun ertainekoak. Ibilaldiaren aurretik izena eman behar da Turismo Bulegoan, 943 78 34 53 telefonoan. Pertsona bakotzak bost euro ordaindu behar ditu, eta umeendako prezioa bereziak jarriko dituzte.

Arantzazu erreka eta kobazuloak ibilaldian, nekazal inguru, iturburuak, urzuloak, dolinak eta kobazuloak ikusteko aukera egongo da. Bestalde, Iturrigorriko basoan, landaretza eta fauna, ikazkinen bizimodua eta txondor plazak ikusteko aukera izango dute.

**IBILALDI GEHIAGO ABUZTUAN**

Aste bukaerako ibilaldiez gain beste lau antolatu dituzte uztaila bukaera eta abuzturako. Hain zuzen ere, uraren ibilbidea

abuztuaren 9an eta 24an egingo dituzte; mendiko larreak eta artzaintza, abuztuaren 10ean; eta Arantzazu erreka eta kobazuloak, abuztuaren 23an.

Natur ibilbide gidatuekin, batez ere, Debagoieneko turistikak erakarri gura dituzte.

**ARRIKRUTZ ETA ERAKUSKETA**

Uztailean eta abuztuaren Oñatiarra datozenek beste hainbat aukera dituzte turismoaz goztzeko; besteak beste, Arrikutz kobazuloa eta Corpus eguneko erakusketa. Uztailean eta abuztuaren erakusketak bisita gidatuen ardura Turismo Bulegoak izango du. Era berean, Sancti Spiritus unibertsitatea eta Parrokiara bisita gidatuko egingo dituzte. Bestalde, Arrikutzeko atea zabalk egongo dira udan. Horren harira, irailera arte, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara egongo dira zabalk, martxinetik domekara arte. Kobazulora sartuko diren azken bisitan 13:00etan eta 18:00etan egingo dituzte. Erreserbak 943 08 20 00 telefonoan hartzen dituzte.



M.B.

# Zebra-bide altxatuak Errekalden

Bizilagunen eskaerak aintzat hartuta, hiru zebra-bide berri jarri dituzte Errekalde auzoko 5., 14. eta 41. zenbakien parean. Hain zuzen ere, errepidearen altueraren gainetik jarri dituzte zebra-bide altxatuak. Era berean, Moiua kaletik Errekaldera joaten diren autoen abiadura murriztu, eta Herri Eskolara, Oñatz Dantza taldeko lokalera eta Errekaldeko entsegu lokaletara joaten diren neska-mutikoen segurtasuna babestu gura izan du Udalak. Langileak dabiltsa egutegiak egotitze lanak egiten. Dagoeneko margotu dituzte zebra-bideak eta bi alboetan ura pasatzeko areka bana egiten dute.

ARETXABAleta > HIRIGINTZA

# Datorren uztailaren 30ean itxiko dituzte betiko kirol etxeak

Oporretatik bueltan eraikina hustuko dute eta irailaren amaieran edo urriaren hasieran, kiroldegia botatzen hasteko asmoa dagoela jakinarazi du Udalak

**MIRIAN BITERI** > ARETXABAleta  
Kirol etxeak betiko ixteko data dagoeneko jarrita dago: uztailaren 30ean izango da hori. Hortik aurrera, udal kirol eskaintza gehienetan Zaindus ginnasiora pasatuko da. Kiroldegia berria eraiki bitartean, baina, herrian hainbat jarduera praktikatu barrik geratu dira aretxabaletarak; tartean, igeriketa.

Udaleko kirol teknikari Asier Mujikak azaldu duenez, oporetatik bueltan eraikina ustuz egingo da. Han dagoen materiala atera egingo dute. Makina asko Zaindus ginnasiora eramango dituzte baina, beste azpiegitura batzuekin zer egingo duten oraindik ez dutela erabaki esan du. Rokodromo da horietako bat. "Ez daukagu kokapen egokirik



Udalak aurreikusi du kirol etxe zaharra iraila amaieran edo urriaren hasieran botatzea.

MIRARI ALTUBE

herrian hori jartzeko eta oraindik zehazteke dago zer egingo dugun", adierazi du.

Igerilekura joatea gustuko dutenak ere inguruko herrietako igerilekutara joan beharko dira.

Eskoriatzako Udalarekin ez dira akordio batera heldu eta beraz, aretxabaletarrek bi aukera izango dituzte irailetik aurrera: txartel mankomunitua edo inguruko herrietako bonoa ateratzea.

**1970eko ERAIKINA**  
Orain arte kiroldegia izandako eraikinak urte asko ditu. Hori 1970ean eraiki zen frontoi bezala erabilia izateko. Baina, 1988an, hainbat berrikuntza egin zen

han, kiroldegi bateko zerbitzuak eskaini ahal izateko. Ordutik hona, mantentze lan larregi ez dira egin eta ondorioz, zaharkituta geratu da. Egoera horren aurrean, gaur egungo eraikina botatzea erabaki du Udalak. Iraillaren amaieran edo urriaren hasieran ekingo diote zeregin horri.

## DEIALDIA

Horren harira, kiroldegia erais-teko proiektua idazteko eta berau botatzeko lehiaketa deitu du Udalak. Horren berri eman zuen martitzeneko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Lizitazio oinarrrien aurrekontua eta ustiaketa kanona 193.516 eurokoa izango dela jakinarazi du iragarki horretan. Bestalde, proiektua idazteko eta kiroldegia eraisteko epea bi hilabetekoa izango dela aipatu du.

Dokumentazioa edo informazioa eskuratu gura duenak udaltxera jo behar du. Eskatutako aurkeztek azken eguna iragarria argitaratu zen egunetik konstatzen hasita 26. egun naturala izango da. Alegia, datorren abuztuaren 10era arte. Udaletxeko idazkaritzan aurkezta beharko da esandako dokumentazioa.

ESKORIATZA > MUSIKA

## Deabruak Teilituetan Inkernun

Laukote tolosarra  
Inkernu tabernan  
izango da uztailaren  
29an, 22:30ean

**M.B. > ESKORIATZA**  
Deabruak Teilituetan taldeko zaleek hitzordua dute datorren uztailaren 29an. Inkernu tabernan joko du, 22:30ean. Laukote tolosarrak *Evil is alive and well 2008* izeneko udako biratxoa egiten dihardu asteotan Euskal Herritik eta esan bezala, hilaren 29an, martxena, Eskoriatzan izango dira.

Ibilbide luzea duen taldea da. 1995ean *Itsumutugor* izeneko lehen diskoa aurkeztu zuen; eta handik bi urtetara, *Zein da zein?* diskoa. Geldiune luzea egin aurretik, 1998an, *Deabruak guarda lana* argitaratu zuen. Bederatzi urte pasa dira ordutik hona. Bakotza bere aldetik jo beharrean, azken hilabeteetan material berria gertatzen eta entseztzen ibili dira. Esan Ozenki Record-sekin argitaratuak izan ziren.



Irudian, Deabruak Teilituetan taldeko kideak.

GOIENKARIA

### AZKEN LANA, 1973

Aritz Mendieta ahotsa, Inigo Arruti bateria, Jon Ubeda baxua eta Imanol Ubeda gitarra-jolea azken lanarekin itzuli dira agertokietara. Laukote tolosarrak 1973izeneko diskoa aurkeztu du; hamaika abestik osatutako dis-

ko. Andoaingo Garate estudioetan grabatu eta Bonberenea Ekintzak zigiluarekin argitaratu izan da hori. Inkernu tabernan duten guztia emango dute, beraz, hilaren 29an, Deabruak Teilituetan taldeko kideak, zaleen gozamenerako.

ESKORIATZA > JAIAK

## Balorazio oso positiboa egin du jaietako batzordeak

Datorren urtean herri bazkaria aldatzea eta autobusak jartzea aztertuko du

**M.B. > ESKORIATZA**  
Eguaztenean jaietako antolatzaleek bilera egin zuten balorazioa egiteko. Oso pozik daudela adierazi du Kultura teknikari Arantxa Unzueta: "Orokorki, balorazioa oso positiboa da. Adin guztiendako ekitaldiak antolatu dira eta aspertzeko astirik ez da egon eta jendea, ondorioz, gustura geratu da. Eguraldiak, gainera, lagundu du".


Hala ere, datorren urteari begira, hainbat kontu hobetu beharko direla dio. Esaterako, astean zehar, gauean, autobusak jartzea aztertuko dute, inguruko herrietako gazteek gerturatu daitezten. Gorosarri plaza gainean egiten den herri bazkaria tokiz aldatzeaz ere jardun beharko dute, "nahiko estu eta txikia geratzen da eta kupelen gunea".

**ARRAKASTATSUENAK**  
Ekimen arrakastatsuen artean, Abbey Road taldearen koncertua, The Beatles taldearen imitatzaleak; Golde Apple Quart-en ikuskizuna eta Euskal Jaia egunean izandako kantu txapelketak aipatu ditu. Azken horretan hamar taldek parte hartu zuten. Umeen ekitalditan ere eskoriatzar asko ibili zirela esan du.

## BASABE jatetxea



Basabe bidea z/g  
Tel.: 943 77 07 94  
Aretxabaleta



Garbiñe García eta Asentzio Zubillaga DYAkko boluntarioak hontzarekin Antzuolako jaietan.

IRATI AGIRREAZALDEGI

## ANTZUOLA &gt; OMENALDIA

# Herritarren esker ona jaso dute DYAkko kideek

Irailean beteko dira 25 urte DYAkko Debagoienean zerbitzua eskaintzen hasi zela

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
Eguenean, jaien hasieran, hontza jaitsi zuten kanpandorretik udal-letxeko balkoira eta han DYAkko boluntario Asentzio Zubillaga eta Garbiñe García zituen zain. Hori izan zen nolabait euren lana esker-tzeko modua. "Herritik aldenduta gaude, baina konturatu gara hori horrela izan arren gogoratu direla gurekin eta poztekoa da jaiteko ekintza bateko parte izatea", esan du Asentzio Zubillagak.

Irailean beteko dira 25 urte DYAkko Debagoienean hasi zela. Orain 15 lagun inguru ibiltzen

dira. Denek boluntario moduan jarduten dute, hortaz, bakoitzaren lanaren arabera eskain diezioke DYAkko denbora.

DYA errepideko laguntzarekin hasi bazen ere, egun mendi-ko eta itsasoko laguntza taldeak eta formazio eskola ere badituzte. Dena Donostian zentralizatuta dago eta zerbitzu handiak han-dik bideratzen dira, baina herriko kontuak gure esku uzten dituzte. "Jaietako ekintzen berri badunez, kalkulatzen dugu zein arrisku eta behar egon daitezkeen zerbitzua emateko".

**ADISKIDETASUNA**

Urte hauetan bitxikeria asko bizi izan dituzte DYAkko. "Gogoan dut nola herrian OVNIak ikusi zituztela esaten zuten eta hori barre-garia izan zen, baina egoera gogorrak ere asko bizi izan ditugu. Niri bereziki eragin zidan mutiko baten heriotzak".

Boluntario moduan jarraitze-ko arrazoia zein den Asentzio Zubillagak argi esan du: "DYAkko eman dizkidan lagunak; ez dago ordaintzerik hainbat kiderekin dudan adiskidetasuna. Ekonomikoki momentu larriak bizi izan ditugu eta herritik ere jaso dugun laguntza eskertzekoa da". Herritarrek DYAkko eskrto dute eta DYAkko esker ona bueltatu.

## ARAMAIO &gt; EUSKARAREN ERABILERA PLANA

# Emun kooperatibarekin batera landutako euskara plana aurkeztuko dute eguztenean

Apiriletik hona zenbait bilera egin dituzte herritarrekin; orain etorkizunerako finkatutako ekintza plana aurkeztuko dute

lera eta normalizazioa indar-teko jarraitu beharreko urrat-sak finkatzen saiatu dira. Horretarako, Emun kooperati-baren laguntza izan dute.

Horrez gain, herritarrekin ere zenbait bilera ireki egin ditu Euskara Batzordeak. Ezinbesteko ikusten zuten-eta herritarren iritzia eta proposamenak ezagutzea.

**ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO**  
Aramaioko Udal pasan den apirilean hasi zen Euskararen Erabilera Plana lantzen. Aramaion euskarak izango duden etorkizuna zehaztea eta planifikatzea da plan horren helburu nagusia. Hori horrela, euskararen erabi-

azterketa horren emaitzak ere badituzte dagoeneko. Guztii hori kontutan hartuta datozen hilabe-teorako ekintza planen egutegia ere zehaztu dute. Orain, herritarrei eman nahi diente etorkizuneko helburu eta ekimenen berri.

Aurkezpena eguztenean, uztailak 23, izango da osoko bil-kuren aretoan, 19:00etatik aurre-ra. Euskara Batzordeak plana lantzko prozesuan parte hartu duten herritar guztiei deia egiten die aurkezen ekitaldira joateko. Dena den, edozein herritarren hartu dezake parte bertan.

Asier Agirre alkatea eta Udal zinegotziak ere bertan izango dira.

Santiago Egunarekin, hilaren 25ean, egingo dituzte eki-taldi nagusiak. 11:00etan meza esango dute auzoko ermitan eta eguerdian soka dantza egingo du Kezka taldeak. Joxe Agirre eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak Goimendin

izango dira saio egiten eta ume-endako jokoak ere antolatu dituzte. 13:00etatik aurrera izan-ko da hori.

te mahai gainean. Elkarteako ordezkariek zuzenean jasotzen dute Udalaren gombidape-na: Gurel guraso elkarteak, Sorginak emakume taldeak, Toki Eder erretiratuenak, txirrindularitzar batzordeak eta pilotaldeak. Baserritarrak eta tabernariak, osteria, ordezkari barik daude, ez dutelako elkar-terik. Eusebio Villar alkateak eskatu die ordezkariak izenda-tzeko eta batzarretara etortze-ko: "Batzorde hori delako kez-katzen dituzten gaiak azaltze-ko tokia". Herritarrek ere parte har dezakete batzarrean.

## LEINTZ GATZAGA &gt; UDALA

# Batzarra egingo du herritarrekin Udalak, eguztenean

Alkatea buru duen batzordea elkartetako ordezkariekin eta herritarrekin osatua dago, eta herriaren gainean jarduteko elkartzen dira

**MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA**  
Batzorde orokorra elkartuko da eguztenean, hilak 23, udal-letxeko osoko bilkuren aretoan (18:30). Udal agintariekin, herriko elkartea eta taldeetako ordezkariek eta herritarrek osatzen dute batzorde orokorra, eta aldiro izaten dituzte batzarrak, ahal dela hilero. Alkatea da batzorde horretako burua eta deialdia egiten duena.

Azken proiektuen berri ematen die alkateak batzordeko kideei. Herriko elkarteeak, osteria, dituzten ekimenak, arazoak eta kezkak jartzen dituz-



Udaletxean elkartuko da batzorde orokorra.

MIRARI ALTUBE

## ELGETA &gt; AISIA

# Santixau jaixak Goimendi auzoan

Festak ez egiteko puntuak egon badira ere, azkenean hilaren 24an eta 25ean ospatuko dituzte Santixauak Goimendi auzoan

**LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA**  
Datorren egunean, 21:00etan, emango diete hasiera Goimendiako Santixau jaiei. Berakatz zopa banatuko dute auzoko plazan eta 23:00etatik aurrera Laja eta Narbaiza trikitilarien erro-meriarekin gozatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek.

Santiago Egunarekin, hilaren 25ean, egingo dituzte eki-taldi nagusiak. 11:00etan meza esango dute auzoko ermitan eta eguerdian soka dantza egingo du Kezka taldeak. Joxe Agirre eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak Goimendin

Boleta txapelketa egingo dute 18:30etatik aurrera. Iluntzean, atzera ere erromeria izango dute Goimendin Izer eta Lutxurdixo trikitilariekin. Txokolatea banatuko dute baita urdaiazpikoa zozketatu ere.

**HERRI KIROLAK ARRATSALDEAN**  
Aizkolariak eta harri-jasotzaileak izango dira 16:00etatik aurre-ra. Aratz Mugertza eta Julen Kañamares aizkolariak eta Ize- na IV. harri-jasotzailea.

Boleta txapelketa egingo dute 18:30etatik aurrera. Iluntzean, atzera ere erromeria izango dute Goimendin Izer eta Lutxurdixo trikitilariekin. Txokolatea banatuko dute baita urdaiazpikoa zozketatu ere.

# Kirola




> **TRIALSINA**  
Hilaren 26an  
Munduko  
Txapelketan izango  
da Aitor Murua > **16**



> **ASIER GARITANO**  
Alacant taldeko  
bigarren  
entrenatzaileari  
elkarritzeta > **20**

> **IGOR ISASI**  
Arrasate Errugbi  
Taldeko kirol  
zuzendari  
berriarekin izan  
gara. Eibartarra  
da Isasi, eta  
maila goreneko  
hainbat taldetan  
jokatu du:  
entrenatzaile  
lanak ere egingo  
ditu > **21**



TXIRRINDULARITZA > ELGETAKO MENDIKO SARIA

## Ugaitz Artola, birritan erorita ere, lehenengoa Elgetan

Azpiru-Ugartekoek  
beste erakustaldi bat  
eman zuten; lehenengo  
lau sailkatuak talde  
horretakoak izan ziren

Fabricio Ferrarik  
-liderra- bizikleta  
hautsi zuen helmugan,  
federazioko autoaren  
kontra talka eginda

XABIER URTZELAI > ELGETA  
Atzo, 120 kilometroetako bakoitza  
lasterkariendako trampa bilakatu  
zen. Lasterketako irabazle Ugaitz  
Artolak onartu zuen hori: "Jaitsie-  
retan ez dakit errepidea zikin zego-  
elako edo zergatik, baina eroriko  
mordoa izan dira. Ni birritan ero-  
ri naiz, baina zortea izan dut, eta  
urte hasieratik begiz jota neukan  
proba irabazi ahal izan dut", adie-  
razi zuen Elgetara igotzen indar-  
tsuena izan zen gizonak.

Azpiruko mutilik, baina, etxe-  
ko lanak ez zituen Elgetako mal-  
detan egin, Arrasatetik Bergara-  
ra bidean, baizik. Tarte horretan  
Ugaitz Artola (Azpiru), Fabrizio  
Ferrari (Azpiru), Guillermo Lana  
(Azpiru), Gorka Amuriza (Camargo),  
Egoitz Murgoitio (Baque) eta  
Ibon Zugasti (Azysa) ziren ihes  
eginda, eta erritmoa aldatuta Artol-  
ak aurrera egin zuen, 40 segun-  
doko abantaila hartu zuen arte.  
"Azpiruko hiru ziklista egonda  
bistan zen hiruretako batek aurrea  
hartsa behar zuela, bestean babes-  
pean. Azpiruko ez beste guztiek



GORA BEGIRA Azpiru Ugarteko txirrindularia denboraldiko bigarren garaipena eskuratzuen uneaz gozatzen, helmugan.

JOSETXO ARANTZABAL

tiraka hasi gara, Zugasti harrapatu  
guran, baina Elgetara igotzeko  
indar barik geratzeko beldurra  
ere bageneukan. Hori dela-eta,  
inork ezin izan dio Artolari harra-  
patu", adierazi zuen Kantabriako  
itzulia irabazi berri duen Ibon  
Zugasti beteranoak -36 urte ditu-.

Zugastik aipatutako talde  
horretan zen Egoitz Murgiondok  
jaso zuen Langarika saria, eta Luis  
Maldonado izan zen lasterketako

txirrindulari borrokalariena. Cue-  
vas el soplaio taldeko ziklistak, bai-  
na, gogotik ordaindu zuen goize-  
an zehar egindako esfortzua, 23.  
helmugaratu zen.

**HELMUGAN, TXARTO**  
Aurreratu moduan, Ugaitz Artol-  
ak zeharkatu zuen lehenengo Elge-  
tako helmuga. Eta, segidan etorri  
zen goizeko beste istripuetako bat.  
Artola helmugaratu eta berehala

behar baino automobil gehiago  
pilatu ziren plaza aurrean, tune-  
la gurutzatu eta aurrera egin beha-  
rrean. Bigarren sailkatu zen Ale-  
jandro Tamayo auto artean gur-  
tzatu zuen helmuga, baina  
hirugarren postuagatik esprinta  
egiten zebiltzan Lanak, Ferrarik,  
Zugastik eta Amurizak parez pare  
aurkitu zituzten Azpiruko eta fed-  
erazioko autoak. Hala, Euskaldun  
Torneoko lider Ferrarik federazio-  
aren autoa jo zuen, bete-betean, eta  
amorratuta, baita kristalari uka-  
bilkada eman ere. Minutu batzuk  
geroago, lasaiago egin zuen ber-  
ba: "Ez dakit aurrean jendea zego-  
elako edo zergatik, baina autoak  
behar ez zen lekuaren geratu dira,  
eta min hartzeko moduko kolpea  
hartu dut. Ahaleginu naiz gera-  
tzen, baina eztarako ere ez. Bizi-  
kletako koadroa hautsi dut".

Debagoiendarren artean, Kepa  
Varela (Baque) bergararra 21. pos-  
tuaren iritsi zen helmugara.

"Elgetako lasterketa  
nahiko eroa izaten da  
kontrolpean izateko,  
baina Azpirukoek  
talde sendoa daukate  
aurten"

Egoitz Murgoitio > Cafes Baque

"Oso zorte txarra izan  
dut gaur, birritan  
zulatu dut-eta gurpila.  
Kantabrian irabazita,  
indartsu nentorren  
Elgetara"

Ibon Zugasti > Azysa Cetya

ESANAK

"Ez dakit jendea  
ze goelako edo  
zergatik, baina autoak  
geratu behar ez ziren  
lekuaren geratu dira,  
eta kolpea hartu dut"

Fabricio Ferrari > Azpiru

### sailkapenak

#### LEHENENGOAK

1. Ugaitz Artola (Azpiru)	3:07:39
2. Alejandro Tamayo (Azpiru)	3:07:52
3. Guillermo Lana (Azpiru)	3:07:52
4. Fabricio Ferrari (Azpiru)	3:07:52
5. Ibon Zugasti (Azysa Cetya)	3:07:52
6. Gorka Amuriza (Camargo)	3:07:52
7. David Gutierrez (Camargo)	3:07:52
8. David Ortiz (Camargo)	3:07:52
9. Garikoitz Zabaleta (Bidelan)	3:07:52
10. Higinio Fernandez (Cueva)	3:08:03
11. Jordi Fite (Azysa Cetya)	3:08:03
12. Egoitz Murgoitio (Baque)	3:08:33
13. Andrey Amador (Lizarte)	3:08:33
14. Carlos Juez (Baque)	3:08:40
15. Jose Carlos Lara (Cueva)	3:08:40
16. Garikoitz Atxa (Lizarte)	3:08:45
17. Asier Fernandez (Telco)	3:08:45
18. Pere Solano (Azysa)	3:09:05
19. Eloy Carral (Cueva)	3:09:32
20. Aitor Reguillaga (Telco)	3:10:25
21. Kepa Varela (Cafes Baque)	3:11:47
22. Arturo Mora (Cueva)	3:12:53
23. Luis Maldonado (Cueva)	3:12:53
24. Jagoba Arberas (Naturgas)	3:13:03
25. Hector Espasandin (C.Rural)	3:13:03

TRIALSINA &gt; AITOR MURUA MUNDUKO TXAPELKETAN

# "Presio barik noa Alemaniara, ondo pasatzea dut helburu"

Espaniako Txapelketan onena izan eta gero, Aitor Murua hilaren 26an esku hartuko duen Munduko Txapelketa du begiz jota

**XABIER URTZELAI** > ARETXABAleta  
Aretxabaletako San Migel elizan egin dugu hitzordua Aitor Muruarekin (Aretxabaleta, 1994). Eliza-aurreak hainbat malda ditu, eta herriko trial-zaleak horibiltzen dira entrenatzen. Datoren astean, baina, ziklista aretxabaletarrak herriko malda eta oztipoak alde batera utzi, eta Munduko Txapelketak erakarriko dituen begiradak izango ditu gain-gainean, Alemanian: "Txapelketara begira lasai nago, ez daukat presiorik, eta ondo pasatzea dut helburu". Hain zuzen, Espaniako Txapelketan falta izan zitzaion lasaitasunaren gainean dabil berbetan: "Orain artean sekula ez naiz txapelketetan urduri jarri. Baina, Espaniako Txapelketan hiru proba ziren, eta azkenekora lehenengo postuan iritsi nintzen. Ez dakit zerzagatik, baina urduri ibili nintzen".

Faborito izatearen ordaina da hori, onenen artean egotea, nahiz eta infantil kategorian izan: "Gorago iristeko hortik hasi behar da".

#### GURASOAK, ONDOAN

Neurri handian, Aitorren aitak, Joxe Kruz Muruak, du semea trialsinera zaletu izanaren *errua*, hark oparitu zion-eta trialsineko bizikleta: "Gogoratzan naiz orain dela 30 urte inguru iritsi zela kirol hori Oñatiara. Orduan gu gazteak ginen, txunditura geratu ginen, baina ezin horrelako bizi-kleta bat erosi", adierazi digu Joxe Kruzek. Hala, saso hartan kirol hori egin ahal ez izatearen arantza semearen zaletasunarekin atera du: "Gainera, behar-beharrezko da gurasoek horatzean egotea, bestela, Euskal Herrian ez litzateke trialsinik egongo". Izan ere, neurri handi batean guraso taldeek antolatzen dituzte Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketak –ibarrean Aretxabaletan eta Arantzazun egiten dituzte.

Alemaniara ere aitarekin batera joango da Murua: "Auto karabanekin egingo dugu hara bidaia. Alemaniako Munduko Txapelketa UCIk antolatzen du, eta handik bueltan Paris ondoan egingo ditugu egun batzuk, han



Aitor Murua, Aretxabaletako elizaren parean, oreka mantentzen. XABIER URTZELAI

BIKE erakundeak antolatzen duen beste txapelketa batean esku hartzeko".

#### EZ DOAZ BAKARRIK

Bidaia hori, baina, ez dute bakkari egingo; Hondarribiko Jon Areitiok eta beste gazte aretxabaletar batek, Unai Zunzunegik (1997) ere Munduko Txapelketan esku hartuko dutelako. Zunzunegi laugarren sailkatu zen Espaniako Txapelketan, alebin mailan, eta Euskadiko federazioaren eskutik joango da Alemania, Espaniako federazioarekin lehenengo hiru saikatuak doaztea.

#### ESANAK

**"Espaniako txapelketan urduri ibili nintzen, eta harritzekoa izan zen, lasai ibiltzen naizelako"**

Aitor Murua > Trial-zalea

#### 'HEMENDIK EZ DAGO BIZTERIK'

Muruak badaki urteek aurrera egin ahala, Munduko onenen artean egonda ere trialsinetik ezingo dela bizi. Iker Lezeta edo Benito Ross dira horren adibide garbiak. Bi trialzale horiek gorengo mailakoak dira, baina hori ez da nahikoa. Gainera, ez da zaletasun merkean: "Aitorren bizikletak 2.000 euro inguru balioko du, eta orain dela ez asko koadroa hautsi zuen. Kontua da pieza horiek ez dituztela barra-barra egiten, eta horregatik dira garestiak". Hain zuzen ere, bizi-kleta marka batendako komertzial lanak egiten dituen Benito Rossen bitarte lortzen dute materiala.

**OPORRETAN ERE BIZIKLETAREKIN**  
Muruatarrek Galizia aukeratu dute aurten oporretan joateko, baina Aitorrek ez du atseden hartzeko asmorik: "Gustura ibiltzen naiz bizikletan, ez da derrigor egin behar dudan zerbait; gainera, denbora tarte batean bizikleta alde batera uzten badut, gero kostatu egiten zait berriro ere gorputzaldia hartzea".



M.ARRIOLABENGOA

## Beroak baldintzatutako proba, Antzinan

Euskadiko Txapelketa barruan Antzinan (Nafarroa) egin zuten zapatuan mendiko bizikleta lasterketa, eta egin zuen beroak goitik behera baldintzatu zuen proba; hala, lasterkari askok bertan behera utzi behar izan zuten proba, eta ez zirkuitua gogorra zelako.

Junior mailan Markel Arriolabengoa aramaioarra (Lizarralde) laugarren sailkatu zen, eta kadete mailan zapigarrenan izan zen Martin Berribetia –argazkian– aretxabaletarra (Lizarralde).

#### > ARETO FUTBOLA

### Labegaraietako areto futbol txapelketakoak oporretara joan aurretik hasi dira lanean

Dagoeneko irekita dago irailaren 20an Bergaran hasiko duten Labegaraietako areto futbol txapelketan izena emateko epea. Antolatzaileak dagoeneko hasi dira lanean, opor osterako lanak aurreratuta izateko. Irailaren 12a izango da izena emateko azken eguna, eta horretarako, talde bakoitzak 200 euro ordaindu beharko ditu Euskadiko Kutxako ondorengo kontu korrontean: 0090033922.

Horrekin batera, taldearen izena, jokalarien nortasun agiria-ren fotokopia eta taldeko ordezkaria zein den adierazi beharko dute, eta baita kontaktu telefonoa eman ere. Irailaren 17an izango da ordezkarien batzarra, horrenbestez, hasi taldeak egiten.

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

[www.eps.mondragon.edu](http://www.eps.mondragon.edu)

**GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**  
**2008-2009**

Ezohiko matrikula epea  
uztailaren 17tik 22ra

*Lanerako gertu!*

**eteo**  
ETEO, KOOP. E.

[www.eteo.mondragon.edu](http://www.eteo.mondragon.edu)

**MONDRAKON**  
Entidad Empresarial Euskal Herriko  
Caja Laboral EUSKADIKO KUTXA  
Asociación HETEL Euskal Herriko

**ESKAINTZA AKADEMIKOA**

<b>MGEP</b>	<b>ETEO</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erregulazio eta Kontrol Sistemas Automatikoak</li> <li>• Informatika Sistemen Administrazioa</li> <li>• Informatika Aplikazioen Garapena</li> <li>• Proiektu Mekanikoaren Garapena</li> <li>• Mekanizazioen Bidezko Produktioa</li> <li>• Industri Ekipoaren Mantenimendua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazioa eta Finantzak</li> <li>• Idazkaritza</li> <li>• Merkataritza Kudeaketa eta Marketigna</li> <li>• Nazioarteko Merkataritza</li> </ul>

# Zure bizimodurako txartel egokia



Orain, **VISA Gazte** berriari esker, zure poltsikoa erosago ibiliko da. Begira:

- ▶ **Zure ordainketak atzeratu egin ditzakezu.** Eta, berehalako ordaindu nahi izanda ere, hurrengo hilabeteko lehen egunera arte ez duzu ezer ordainduko.
- ▶ **Erosketa bakoitzeko, puntuak metatuko dituzu** (5 euroko puntu 1), eta gero puntuok hainbat opari ederrenagatik trukatu.
- ▶ **3 hilabete interesik gabe** lehenengo atzerapen edo geroratzearrekin, 2009ko urtarrilaren 31 baino lehen egiten baduzu.
- ▶ **Beherapen eta baldintza bereziak** izango dituzu.
- ▶ **Segurtasuneko alerta, aseguruak barne...** eta askoz gehiago!!

Informa zaitez hemen: [www.gaztekutxa.net](http://www.gaztekutxa.net)

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)



 **kutxa**

## Gerentziak erabilitako autoak

### 2 Avensis Diesel 126 ZP familiarra



#### Maila goreneko autoak prezio ezin hobean

- Segurtasunean bere segmentuko onena
- 9 aire-poltsa, 5 Euro NCAP izar
- Azkeneko teknologiako VVT-i motorra
- Oreka ezin hobeak, ezaugarriak, erosotasuna, potentzia, ekonomia eta emisioen kontrola.

**Prezioa 26.710 €/ Prezio berezia 22.900 €**

**Aurreztu 3.810 €**

*Finantzazioa TOYOTA FINANCIAL SERVICE (gure prezioak hobetzen ditugu)*

## Gerentziak erabilitako autoak

### Corolla Verso auto 1, 2.2 Diesel 136 ZP

Aire-girogailu automatikodun beira



#### Zergatik mugatu?

- Bere mailako autorik seguruena
- 9 aire-poltsa, ABS, EBD, BA, TRC
- Erosotasun ziurtatuko dizuten 7 eserleku
- Bere segmentuko ekologikoena.
- Kontrol elektronikorako unitatea

**Prezioa 24.730 €/ Prezio berezia 21.500 €**

**Aurreztu 3.230 €**



TODAY TOMORROW **TOYOTA**



FINANCIAL  
SERVICES



Informazioa eta probatzea:  
902 342 902

**EUSKOAUTO**  
**Pasai Antxo**  
San Marcos 32 eraikina  
Tel.: 943 345 080

**Elgoibar**  
Olaso poligonoa 25  
Tel.: 943 747 417

**Bergara**  
Olabarren auzoa z/g  
Tel.: 943 76 23 85

**Olaberria**  
Yurre auzoa, Karob. Poligonoa  
Tel.: 943 80 59 24

TXIRRINDULARITZA > SANTA MARINA SARIA BERGARAN

# Andoaingo Ugalde anaiak izan ziren protagonistak helmugan

Biak bakarrik iritsi ziren helmugara; sari nagusia eta mendiko saria eroan zuten

Uste baino parte hartze txikiagoa izan zuen lasterketak: 61ek eman zuten izena

**ARANTZAZU EZKIBE** > BERGARA Bi anaia, Imanol eta Aitor Ugalde, izan ziren zapatuko lasterketako protagonistak. Andoaingarrak bakarrik iritsi ziren Santa Marinako helmugara. Eskutik helduta, Imanol sartu zen lehenengo helmuga puntuatua (2:23:30). Ondo pentsatutako erabakia izan zen; izan ere, Aitorrek mendiko saria eskuraturat zuenez, sariak bien artean banatzeara erabaki zuten.

Eguneko beste protagoniste-tako bat eguraldia izan zen. Zapatuan izugarrizko beroa egin zuen; ondorioz, hainbatek lasterketa utzi behar izan zuten. Irteera puntuatua 61 ziklista zeuden, baina, 91 kilometrotako lasterketaren ostean 36k lasterketa utzi zuten. Hala, 25 ziklista heldu ziren helmugara.

## IHES EGINDA, HASIERATIK

Gazte mailako XVII. Santa Marina lasterketa izan zen zapatuko. Txirrindulariak 16:00etan irten ziren Matxiategi kaletik. Handik Osintxura hartu zuten.

Lehenengo kilometroetatik egon ziren ihesaldi saiakerak. Imanol Ugalde irabazlea, esaterako, hasieratik ibili zen ihes eginda. Helmuga puntuatua adie-



Xabier Arantzeta eta Andoaingo taldeko kideak sari banaketaren ostean.

ARANTZAZU EZKIBEL



Imanol Ugalde  
Irabazlea

Xabier Arantzeta  
Herriko onena

Temperatura altuak lasterketa gogortu du; baina, gainontzekoan ez zait gogorra egin. Ez nuen uste helmugara ihes eginda iritsiko nintzenik. Polita izan da anaia eta biok batera iristea.

Gustura geratu naiz egindako lanarekin; ez nuen pentsatzen horren ondo ibiliko nintzenik. Lasterketako azkeneko zatian taldeket ihes egin dut eta ondo sartu naiz helmugara.

razi bezala, ez zuen uste amaieraraino ihes eginda iristea lortuko zuenik. Horregatik, pozik zegoen egindako lanarekin. Azaldzu zuen, lehenengo aldiz ihes eginda ibili ostean tropelak harrapatu egin zuela; baina, bigarren saiakeran, anaia-rekin, helmugaino iristea lortu zuela.

## UDANAN APURTU ZEN LASTERKETA

Txirrindulariek Osintxu eta Oñati arteko bidea bi bider egin behar izan zuten. Bigarren aldiz Oñatiira iritsi zirenean, Udanako bidea hartu zuten. Ordurako, ziklistek bizikleta gainean 63 kilometro eginak zituzten. Nekea, eta batez ere beroa nabaria zen txirrindularien gorputzetan.

Aurkarien nekea aprobetxatuz, Udanen egin zuten ihes Ugalde anaiek. Handik aurrera bi

ziklistak bakarrik ibili ziren eta helmuga puntura bakarrik iris-tea lortu zuten.

## MENDIKO SARIA

Udana gainean eta Deskarga gainean jarri zituzten mendiko sariko tarteko helmugak. Bietan one-na Andoaingo Aitor Ugalde izan zen; ondorioz, hark irabazi zuen mendiko saria.


Lasterketako sari ia guztiak Andoaingo taldeak eroan zituen. Lasterketa Imanol Ugalde irabazi zuen; Mendiko saria Aitor Ugalde; taldeko saria Andoaingo T.E.; eta, herriko lehenengoaren saria Xabier Arantzetak eroan zuen (6.a helmugan). Antzuolarra gustura zegoen egin-dako lanarekin. "Azken kilometroetan tropeletik ihes egin dut baina Bergaran beste batek pasa-tu egin nau", esan zuen amaieran Arantzetak.

## DEBAGOIENDARRAK

Esan bezala, 61 ziklistetatik 25 besterik ez ziren iritsi helmuga puntura. Horien artean, bi debagoiendar zeuden: Sumofic taldeko Xabier Arantza eta Ulma taldeko Oier Olalde (2:31:18).

Atzo, domeka, Euskadiko txapelketako lasterketa zuten jokoan txirrindulari gazteek. Horregatik, askok ez zuten zapatuan Bergaran dena eman gura izan. Lasterketa bataz besteko abiadura 38,05 kilometro ordukoa izan zen.

Matxiategin, lasterketa amaieran, ziklista gehiago zeuden begira parte hartzen baino.



**Erosten jakin:**  
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**  
*zurekin*

FUTBOLA &gt; ELKARRIZKETA

# Asier Garitano, Alacanterekin 2.A mailan

Bergarar jokalari ohia Jose Carlos Granero entrenatzailearen lagunzailea da

Laugarren saiakeran igoera lortu ondoren, Reala edo Zaragozarekin lehiatuko dira aurten

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

Futbolaria zenean, hara eta hona ibili zen Asier Garitano (Bergara, 1969). Makina bat taldean jokatu zuen: Bilbao Athletic, Eibar, Cadiz, Cartagena, Gava, Alacant, Burgos... Lehen mailan jokatzera ez zen iritsi baina bere kalitatearen arrastoa utzi zuen han eta hemen. Alacant taldean erretiratu zen eta, antza denez, han leku aproposa topatu zuen behingoz geldi egoteko; bederatzi urte darama han, azkena entrenatzaile gisa. 2.B mailan zegoen taldea erretiratu zenean eta iaz, Jose Carlos Granero entrenatzailearen lagunzaile zela, 2.A mailara igotzea lortu zuen. Ponferradina ospatu zuten igoera. Laugarren saiakera zen aurtengoa, play-offetan. Orain dela hamar urte preferente mailan zegoen talde batentzat lorpen ikaragarria. Auzoko taldea izanik, bestek beste, Zaragoza, Murtzia edo

Realaren aurka neurako ditutte indarrak abuztuaren 31tik aurrera.

Gaur, asteleheneta, denboraldi berria gertatzeari ekingo dio Alacantek. Ilusioz dago Asier Garitano: "Guretzat gauza handia da 2.A mailan jokatzea, are gehiago kontuan izanda hemen inguruko talde asko dagoela kategoria horretan. Ez dugu egin aparteko aldaketarik eta iazko talde bera mantentzen dugu. Oraingoz hiru fitxaketa *lotu* ditugu: Numantziatik datorren Rafa Jordà golegilea, Blanco defentsa (Tenerifetik) eta Castells, Poli Ejidotik. Liga hasi bitartean beste hiruzpalau fitxaketa egitea da gure asmoa. Gure helburua zera da: mailari eustea eta gure proiektua egonkortzea".

Bergararrak ondo baino hobeto ezagutzen du bigarren maila. Izan ere urte asko egin zituen maila horretan jokatzen: "Kategoria

zaila eta liga luzea da hau. Gorabehera asko egoten dira ligan. Nork esango zuen joan den urteko liga hasieran Numantzia eta Sporting igoko zirela? Talde on asko dago eta partiduak irabaztea zaila da benetan". Faboritoak aurreratzea oso zaila dela diosku entrenatzaile bergararrak: "Zale gehienei Zaragoza etorriko zaie burura, azken baten aurten jaitsi den taldea delako eta aurrekontu handia duelako. Baino ize-narekin bakarrik ez dago igotzerik... Helburu bera duten talde asko dago: Celta, Realta, Clemen-teren Murtzia, Tenerife, Hercules...". Hain zuzen ere, Hercule-sen kontrako derbia izango da partidu berezietako bat. Bi taldeek futbol zelaia konpartitzen dute: Rico Perez. Bi taldeen arteko derbia urtarriaren 11n iritsiko da Ligako lehenbiziko partidua Xerez aurka izango dute.

## GAURTAK, ENTRENATZERA

Esan bezala, gaur hasiko dira entrenamenduekin. Lehenbizi-ko astea Alacantean bertan eman-go dute eta hurrengo astetik kon-tzentrazio txiki bat egingo dute handik gertu, Olivan (egunotan Juande Ramosen Tottenham taldea dabil Alacantek hartuko duen



Asier Garitano Alacant taldeko bigarren entrenatzailea da.

GOIENKARIA

Oliva Golf hotelean). Handik Alacantera itzuliko dira eta liga hasi baino lehen beste hiruzpalau egun egingo dituzte Olivan.

Ligan, gertuko bidaia asko izango ditu Alacantek: Castelleno-nera, Murtziara edo Albacetera.

Logikoa denez, Euskal Herrira, etxera etortzea berezia izango da: "Abenduaren hasieran jokatuko dugu Donostian eta partidu hori eta etxetik gertu jokatuko ditugun beste biak, Eibarren eta Gasteizen, bereziak dira, noski!".

PILOTA &gt; OÑATIKO PLAZAKO TXAPELKETA

## Finalerdiak bihar eta egunean Oñatin

Kadete eta gazte mailetako partiduak jokatuko dira; finalak uztailaren 30ean izango dira

E.M. &gt; OÑATI

Bihar, martitzena, eta egunean, hilaren 24an, Plazako txapelketaren finalerdiak jokatuko dira Oñatin. Bihar, uztailak 22, kade-te mailan, Obregon eta Zubizarreta eskoriatzarrak eta Etxeberria eta Larrañaga aretxabaletarrak izango dira aurrez aurre. Jarraian gazte mailako lehen



Ander Muguruzak irabazi egin zuen egubakoitzean, Antzuolan. JOSEKO ARANTZABAL

finalerdia etorriko da: Altsasuko Alustizak eta Martinek Altzoko Arratibelen eta Erauskinen aurka jokatuko dute.

Egunean, kadete mailan, Ortiz eta Lejalde Antiguoko ordezkarriak eta Andoaingo Ira-storza eta Uranga izango dira aurrez aurre. Gazte mailako finalerdia Iriondo-Murgiondo azpeitiarrek eta Epelde-Lertxundi bikoteek jokatuko dute. Bihar eta eguneko jaialdiak 19:00etan hasiko dira. Finalak uztailaren 30ean jokatuko dira, ordu berean, Oñatiko Plazako frontoian.

**ANTZUOLAKO JAIETAKO JAIALDIA**  
Bestalde, Antzuolako jaien barruan, amateur mailako partiduak izan ziren egubakoitzean Antzuolan: Muguruzak eta Iru-retak 22-20 irabazi zieten Aman-tegiri eta Lopezi. Jarraian Onsallo eta Bengoetxea 22-17 nagusitu zitzaien Mendizabal antzuolarra-ri eta Jauregiri.

IGERIKETA &gt; ASTEBURUAN ANOETAN

## Bergarako zortzi igerilari Euskal Herriko txapelketan

Nielka Ibargurenek bular estiloko 100 eta 200 m-ko probak irabazi zituen zapatuan

E.M. &gt; BERGARA

Infantil mailan Ander Fran-co 6.a izan zen 50 m-ko tximeleta proban eta Urki Ibarguren 11. tokian sailkatu zen 100 m bizar estiloan.

## PROMESAK

G-3 kategorian Xabier Labaka 4.a izan zen 100 metrotan, bular estiloan eta Jon Mujika 6. sailkatu zen 100 m bizkarretan. Ana Balentziaga 200 m libretan 5.a izan zen, promesa mailan.



Irudian, Bergara Igeri Elkarteko ordezkarriak.

AMAIA ANDUEZA

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

## JUAN ZELAIA VIII. Saiakera saria


antolatzen du, euskaran idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabalduta eta sustatzeko asmoz.

**Saria: 9.000 €**

Lanak bidaltzeko:  
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUNEA.

**Irailaren 30a arte.**Tel.: 948 326535  
soltxate@pamiela.org

Arauk: www.pamiela.org



Igor Isasi (Eibar, 1981) goi-mai-lako jokalari ohia izango da Arrasate errugbi taldeko kirol

zuzendari eta entrenatzaile berria. Orain arte jokalari lane-tan ibili da, baina, lesio bat tar-

teko, jokatzeari utzi behar izan dio. Hala, Arrasateko taldeak egindako eskaintza onartu eta

talde nagusiko entrenatzaile berria izango da Isasi. Gogoz datorrela esan du.

Igor Isasi > Errugbi entrenatzailea

# "Ondo pasatzeaz gain, kirolak seriotasuna eta diziplina eskatzen du"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE Entrenamenduak prestatzen hasi dela aitorru du Isasik, oraindik jokalariekin lanean hasi ez den arren. Helburua, ondo pasatu eta talde giroa sortzea dela esan du. Zuzendaritzarrekin elkartzen eibartarra egubakoitzean Mojategin. Han harrapatu genuen.

Noiz hasi zinen errugbian jokatzen?

13 urterekin hasi nintzen jokatzen, infantiletan. Lagunekin hasi nintzen; futbolean eta saskibaloian ez nintzen ona eta errugbia probatzea erabaki nuen. Oso gustura ibili izan naiz eta politiki-poliki mailaz igotzen joan naiz.

Aurrera joan ahala, eta izan dudan entrenatzaileei esker, nire maila ere hobetzen joan da. Gazte mailan selekzioarekin jokatzen hasi nintzen; bai Euskadi-koarekin eta baita Spainiakoarekin ere. Hain zuzen, gazte mailan eman nuen kanporako saltoa.

**Donibane Lohizunera joan zinen.**

Bai. Euskarians konbinatuarrekin Argentinan egon ginen behin. Orduan, Donibane Lohizunek fitxatu zidan. Han hiru urte eman nituen; gero, hegoaldera itzuli nintzen, hain zuzen Getxora. Urte erdi egin nuen Getxon, abendu erdialdera arte. Getxotik Ordiziara joan nintzen eta han eman ditut azkeneko lau urteak.

**Lesio bat tarteko, jokatzeari utzi behar izan diozu.**

Bai, azkeneko partiduan susto bat izan nuen. Ezkerreko begiko betzuloa eta maxilarra apurtu nituen; erdi zorabiatura egon nintzen ospitalean. Medikuak esan zidan sei hilabete jokatzen barik egoteko. Hortaz, aurten behintzat errugbian jokatu barik egoteko erabakia hartu dut.

**Jokatzeari utzi eta entrenatzen hasiko zara, hortaz.**

Arrasateko eskaintza izan dut eta proposamena asko gustatu zait. Ni ez naiz izan inoiz entrenatzailea; prestatzale fisiko lane-tan ibili naiz, baina ez entrenatzaile lanetan. Arrasate Euskal ligan dagoen taldea da, mailarik baxuenean. Hortaz, hasteko talde polita dela uste dut. Helburua polita da, ondo pasatzea, taldea osatzea... idea gustatu zitzaidan eta onartu egin dut.



Igor Isasi eibartarra. Errugbi taldeko zuzendaritzarekin bilera izan zuen egubakoitzean, Mojategin.

ARANTZAZU EZKIBEL

**Erronka handia da?**

Bai, hala da. Esan behar da, IVEF ikasketak egin ditudala. Arrasaten lan egiteko aukera sortu da eta kirol hau asko gustatzen zaidanez onartzea erabaki dut. Argi neukan, nola edo hala, errugbiaren alorrean jarraitu behar nuela: entrenatzaile edo jokalari bezala. Oso eskertuta nago Arrasateko taldeari, aukera hau oso gustura hartu dut.

**Zein izango da zure lana Arrasateko elkartearen barruan?**

Nere lana, batez ere prestatzale fisiko lana egitea izango da. Hasi kadete mailatik eta neske-taraino arduratu naiz prestaketa fisikoaz. Bestalde, senior mailako mutilen entrenatzailea ere izango naiz.

**Jokalariak ezagutzeko aukerarik izan duzu?**

Jokalari gehienak ezagutzen ditut. Batez ere, Eibar taldean

ERRONKA

**"Errugbian jarraitu gura nuela argi nuen, eta Arrasateko eskaintza asko gustatu zait"**

HELBURUA

**"Ondo pasatzea eta talde giroa sortzea izango da aurtengo helburuetako bat"**

MOJATEGI

**"Instalazioak ondo daude, baina belar naturala gurago dut artifiziala baino"**

nenbilenean euren aurka jokatu izaten genuelako ezagutzen ditut jokalariak.

**Hasi zera taldea prestatzen?**

Bai, hasi naiz lanean, bana-bil gauzak prestatzen. Baina, oraindik zuzendaritzarekin gauza batzuk zehaztea gura ditut: bestekatzea beste, noiz hasi denboraldiaurrea, zela hasi... Seriotasun pixka bat eman gura diot taldeari. Lagun giroa oso garrantzitsua da, baina ez da inoiz ahaztu behar errugbi talde bat garela eta ondo pasatu behar den arren, kirolari ere begiratu behar zaio-la. Kirolak seriotasuna eta diziplina eskatzen du, beti ere ondo pasatuz.

**Zeintzuk dira datorren urterako jarri dituzun helburuak?**

Zuzendaritzarekin bat nator, lehenengo helburua ondo pasa-tzea dela, emaitzari garrantzia eman barik. Denok ondo pasa-

tzea; bai, entrenatzaile, bai zuzen-daritzeta eta baita jokalariek ere. Bestalde, taldea osatzea da beste helburuetako bat.

Nire helburu pertsonala, joka-lari bakoitzak momentu oro zer egin behar duen jokitea izango da: entrenamenduetan, partiduetan, elikadura zela zaindu, zela entrenatu, zela errekuperatu... hori izango da nire helburua. Kirola egiteko ohitura hori sar-tu gura diet jokalariei.

**Errugbia ez da kirol ezaguna hegoaldean.**

Pixkanaka hasten doan kiro-la da. Gero eta publizitate gehia-go ematen zaio errugbiari: gainera, Anoetan jokatu dira parti-duak, mundiala jokatu dute... Orain, gainera, Espainiako liga iberika bat sortu gura dute. Kos-tako zaio beste kirol batzuen mai-lara iristea, baina poliki poliki jendeak ezagutzen du. Eskola kirolean ere, hasi da sartzen errugbia. Gero eta diru gehiago sartu gero eta gehiago ezagutu-ko den kirola da.

**Donibane Lohizunen jokatu duzu. Iparraldea eta hegoaldearen artean alde handia dago?**

Bai, ez dauka zer ikusirik. Han oso kirol ezaguna da, hemen futbolak duen maila bera du. Kalean, umeak errugbian jokatzen ikusten dituzu. Partidutara jende ugari joaten da, txaranga eta guzti. Jendez lepo beteta ego-ten dira harmailak. Gainera, mai-la guztiako partiduak ikustera joaten dira zaleak. Han, errugbia bizi dutela esan daiteke.

**Ordizian ere jokatu duzu, lehenengo mailan.**

Bai, orain dela hiru urte igo-ginen lehenengo mailara. Ordizia, Trevijanontzelaian jokatzen da. Ez dira instalazio onak, baina zaleen babesea izaten dugu. Esan daiteke, Ordizia zale asko daudela; dagoen eguraldia dago-ela ere, beti dago jendea partidua ikusten. Kontuan hartu behar da Ordizia ez dela talde handi bat, beti behiko postuetan ibili izan dela, maila mantentzeko lehian

**Mojategiko instalazioak zer iruditzen zaizkizu?**

Atxabalperek alderatuta hobeto daude. Izan ere, hango zelaia ez zegoen batere ondo. Min hartzeko arrisku handia zegoen, batez ere euria egiten zuenean. Bestalde, belar artifiziala baino naturala gurago dut.


*Eraman dotoretasuna  
zure etxera*

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51



#### > JAIAK

Adin guztienako ekitaldian izan dira asteburuan Antzuolan **> 24**



#### > ELKARRIZKETA

Jose Antonio Azpiazekin izan gara aste bukaera pasatzen **> 27**



#### > TELEBISTA

Oihane Perez Euskadi Irratiko kazetariarekin elkarrizketa **> 29**



Oskorrik, Udal Musika Bandarekin batera 17 lan eskaini zituzten egubakoitzean kirolegian eskaini zuten kontzertuan.

JOSETXO ARANTZBAL

## MUSIKA

# Oñatiko Udal Musika Bandak eta Oskorrik kontzertu arrakastatsua eskaini zuten

Kirolegia lepo bete zen: 800 lagun inguru bildu ziren bertan

Amaiera Antonino Ibarrondoren 'Atzeko kale' lanarekin eman zioten

#### JASONE ZABALA > OÑATI

Arrakastatsua izan zen egubakoitzean Oñatiko Udal Musika Bandak eta Oskorrik Zubikoa-k kirolegian eskaini zuten kontzertua. Lepo bete zen kirolegia kontzertua ikusteko; hamailak eta ekitaldirako ipini zituzten aulkietan ez zegoen lekurik; guztira 800 pertsona izan ziren bertan.

Oskorrik taldearen 35. urteurrena ospatzeko, 2007ko ekainean *Oskorri Banda Band* izeneko diskoa kaleratu zuen. Orduan herriko herri aurkezten dihardute diskoa.

#### 'ATZEKO KALE'

Eskenatoki gainean guztira 60 musikari egon ziren -Oskorri taldeko zazpi kide eta 53 herriko Bandakoak, Inazio Ibarron-doren zuzendaritzapean.

Udal Bandak 14 pieza eskaini zituen eta Oskorrik hiru; guztira 17. Kontzertuari amaiera, *Atzeko Kale* lanarekin eman zioten; herrian oso ezaguna den lana da; Antonino Ibarrondok 1930. urtean egindakoa. Eskainitako beste lan batzuk, *Desertore, Furra-furra, Argioilarrak, Bizkai purri eta Lamikizko sukaldaria* izan ziren.

#### DEBAGOIENEKO HERRI BAKARRA

Oñati izango da Debagoienean Oskorrik bere diskoa aurkeztuko duen herri bakarra.

Udal Musika Bandako zuzendaria Inazio Ibarrondok, adierazi digu, ekitaldi honetarako gainera esfortzu handia egin dutela musikariekin, urtean zeharreko kontzertu batzuen entseguak alde batera utzi behar izan dituztelako, buru belarri aritu baitira egubakoitzeko kontzertua prestatzen. Kontzertua amaitu ostean, Ibarrondo gustura zegoen eskainitako ekitaldiarekin, bi arrazoiengatik:

"Alde batetik, kontzertua ondo irten delako eta jendea gustura atera delako kirolegitik, eta bestetik, lan handia suposatu duelako dena prestatzea eta azken emaitza ona izan delako; bai gu eta baita Oskorri taldekoak pozik geratu gara emaitzarekin". Bertara hurbildu ziren ikuaglek ere oso gustura atera ziren ordu eta erdi iraun zuen kontzertutik.

Udal bandaren hurrengo kontzertua datorren irailaren 9an izango da Arantzazun, Arantzazuko amabirjinaren eguna ospatzeko.



Herritar ugari hurbildu ziren Alfontso X.a plazara Biteriri eskainitako omenaldira.

JOSEKO ARANTZABAL

OMENALDIA &gt; PEDRO BITERIREN JAIOTZAREN 175. URTEURRENA

## Pedro Biteriren lana goraipatuz omenaldi beroa eskaini diote

Alfontso X.a plazan Biteri filantropoari omenaldi beroa eta jendetsua eskaini zioten; musika, dantza, kantua eta lore-eskaintza izan ziren

JASONE ZABALA > ARRASATE  
Egubakoitzean egin zioten Pedro Biteri Arana zenari omenaldia. Egubakoitzean bete ziren 175 urte Biteri jaio zela. Arrasatearrak esker ona adierazi nahi zioten filantropo ezagunari, Alfontso X.a plazan bere omenez eginda dagoen monumentuaren aurrean. Jose Mari Velez de Mendizabal historialari arrastearrak, Biterik herriari egingako ekarpena goraipatu zuen, "Biterik bezain besteko garrantzia" izan zutela "bere jarrai-

tzaileek". Gainera, adierazi zuen Biterik asmatu egin zuela Felix Arano irakaslea kontratatzerakoan, Aranoren hezkuntza "errespetuan, ingurune naturalean, besteei entzutean eta ezaugtzak transmititzean" oinarritu baitzen. Ekitaldian zehar, berbaldiak eta musika tartekatu ziren. Pello Ramirez biolontxelo-jotzaileak eta Juantxo Zeberio piano-jotzaileak, bertara hurbildu zireneni musika saioa eskaini zieten. Aurreskua ere dantzatu zuten bi gaztek

monumentuaren aurrean. Juanito Leibar Biteriren biografia-ren idazleetako batek, zera adierazi zuen: "Ez dakit nola idatzi nuen biografia, Biterik biografiarik ez dauka-eta. Bere bizitza ez zen, adibidez, Seber Altuberenabea bezalakoa izan. Altubek bidaiatu egin zuen, politikaria izan zen,...".

Dabid Arzamendi ezaguna Aranoren ikasleetako bat izan zen, eta adierazi zuen filantropoak 800.000 pezeta eman zituela XX. mendearen hasieran. Dirutza handia garai haietan. Oihana Aranburu jarduneko alkateak bestalde, esker oneko hitzak izan zituen Biterirendako, eta lore sorta jarri zuen Biteriren monumentuan.

AZPIEGITURAK &gt; ABIADURA HANDIKO TRENA

## AHTren aurkako protestaldia egin dute Arrasaten

Egubakoitzean egindako elkarretaratzean, AHT egiteak suposatzen duen "txikizioa" salatu nahi izan zuten herriko plazan bildutakoek

J.Z&gt; ARRASATE

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) obrak Debagoienean hasi dira. Hori salatzeko elkarretaratzea egin zuten egubakoitzean Arrasateko plazan.

Guztira 200 pertsona inguru elkartu ziren *Obrak Gelditu! AHT-rik ez!* leloa zeraman pankartaren atzean.

AHTren aurkako kidea den Hilario Manzanedok obrak "isilean eta ezkutuan" hasi direla salatu du. Adierazi du, politikariek uste dutela munduko lur eta uren jabe direla, eta udako opor egin hauek erabilten ari direla AHTren lanetan aurrera pausuak ematen joateko, inguruko lurrei izugarrizko kalteak eginez. Gaineratu du, nahiz eta makina bat edo bi izan inguruko lurretan sartu direnak AHT egiteko lanekin hasteko, dagoeneko astebete edo

hamar egunetan naturari egin dioten kaltea ikaragarria dela eta erraztasun askorekin doazela lan hauek aurrera.

Elkarretaratzearen ondoren, azpiegitura horren lanen gaineko bilera informatiboa egin zuten gaztetxeen, eta han 70 lagun inguru bildu ziren. AHTren lanak salatzen jarraitzeko eman beharreko hurrengo pausuak zeintzuk diren aztertu zituzten, eta horri begira Debagoienean indarrak bildu eta "egiten ari diren txikizioa" salatzen jarraitzeko asmoa azaldu dute.

DATOZEN EGUNETAKO EKINTZAK

Gaztetxeen norberaren proposamenak mahai gainean jarri ostean, datorren bi asteren buruan beste protesta ekintza bat egingo dutela adierazi du Manzanedok.



Herritar ugari hurbildu zen herriko plazara egubakoitzean.

JOSEKO ARANTZABAL

## Euskarak batzen gaitu



Astelehenetik barikura  
eguneko menua

Asteberuetan  
plater konbinatuak, ogitartekoak eta menu bereziak

# Marka eta modeloetan aukera zabala!



Audi



SEAT



# Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



# UDAKO ARGAZKien ASTELEHENeko GOIENKARIA IV. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)



**KOREAKO JAUREGIAK.** Asiarrak maisuak dira arkitekturan eta loradade, argazkiko modua. Hiria polita ez izan arren, baditu txoko interesarriak. /Argazkia: Edu Jauregi /Bergara



**DANUBIOKO EGUZKIOREAK.** Bizikletan bidaiatzek argazki ederrak egiteko aukera ematen du besteak beste. Eguzkiloare hauena esate baterako. Hungriako lurrardeetan eginikoa da, Danubio errekkak bustitzen dituenak. /Argazkia: Goizane Gabilondo /Eskoriatza



**BERDE BERDEA.** Garziaetxabe, Jokin Antxia eta Jexus Etxebarria San Kristobal ingurueta. Lagunartean ibilaldiak egiteko garai aproposa da uda. /Argazkia: Adoratriz Herrasti /Arrasate



**HEGAZTIAK.** Joan den urteko udan, Galizian, mendian hegaztie ate-ratakoa argazkia da goikoa. Hegaziak argazki kamerarekin harrapatzea ez dago gaitz.... /Argazkia: Sandra Bretaña González /Bergara

## Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabeak)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugariak izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2008ko irailaren 17a.

## Sariak:

- 1. saria: Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 2. saria: Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonentzat, Arrasate Bidaia-en eskutik.
- 3. saria: bi pertsonarentzako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen. .



## Babeslea:



## Laguntzaileak:



ASTE BUKAERA...

## Jose Antonio Azpiazuarenkin



Jose Antonio Azpiazu Zubikoa kirodegiko sarreran, atzo. Domekero igeri egitera joaten da Lege Soziologia Institutuko irakaslea.

JOSETXO ARANTZABAL

# "Igeriketa atsegin dut eta domekero kirodegira joaten naiz igerilekura"

Jose Antonio Azpiazu  
Nazioarteko Lege  
Soziologia Institutuko  
argitalpenen  
arduraduna da

Lasaitasuna, paseoak,  
kirola eta amari  
Zumarragara egiten  
dion bisita tartekatzen  
ditu aste bukaeran

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Jose Antonio Azpiazuk (Legazpi, 1944) filosofia ikasketak egin zituen, askok idazle moduan ezagutzen duten arren. Nazioarteko Lege Soziologia Institutuan dihardu argitalpenen arduradun moduan. "Bi argitalpen mota egitzen ditugu institutuan: alde batetik, ingelesezko argitalpenak egitzen ditugu Hart izeneko bildumaren barruan; eta, beste alde batetik, espanolezko argitalpenak Madrilgo Dyckinson etxearekin eginen ditugu. Argitaratu beharreko materiala jaso eta argialetzeekin hartu-emantzen eginen naiz. Bestalde, sei hilean behin institutuan egindako lanaren laburpena jasotzen duen boletina argitaratzen dugu. Horixe da nik eginen dudan lana. Argitalpenik badago, ni tartean ibiliko naiz", dio. Gehienbat "bolego lana" eginen duela esan digu.

Bestalde, bisitan etortzen direnei harrera egiten die. Nazioarteko Lege Soziologia Institutuan antolatzen dituzten mintegi eta ikastaroen ardura beste pertsona batzuk dutela esan digu: "Mintegi batzuetan entzule moduan parte hartzen dut".

Laneko zortzi orduak bukatzentzu dituenean, astegunetan, besete gauza batzuk eginen ditu. "Liburuak edo artikuluak idatzi gura baditut, hitzaldiak eman edo artxiboetan begiratu gura badut, guzti hori lan ordutik kanpo egin behar dut; eta kostata baina denbora topatzten dut".

Jose Antonio Azpiazurendako, egubakoitz arratsaldetan hasten dira aste bukaerak: "Egia

esan nire aste bukaera gehienak oso antzekoak dira. Barikuetan lasai ibiltzen naiz, eta zapatu goizean ama bisitatza joaten naiz Zumarragara. Urte asko dira Oñatin bizi naizela, baina Legazpi, Zumarraga, Lierni eta Segura asko gustatzen zaizkit, besteak beste", esan digu. Zapatu arratsaldetan liburu artean ibiltzen da buru-belarri eta paseatzea atsegin du. Bestalde, kirola egi-

teko domeketan joaten da kirodegira. "Igeriketa asko gustatzen zait, eta osasuntsua da gainera", dio. Domeka arratsaldetan "berriro" hartzen ditu papera eta arkatza. Aste bukaerak plifikatuta dituen arren, beste plan batzuk ere egiten ditu. Adibidez, abuztuan lagunekin Poloniaira egingo du irteera. "Bi urtean behin egiten dugu irteera eta 30 bat lagun elkartzen gara. Aurreko urteetan Baltikoko Herrialdetan, Alemanian eta Italian egon ginen. Abuztuaren 4tik 12ra egingo dugu bidaia".

### MUSIKA ZALEA

Musikak ere toki berezia du Jose Antonio Azpiazuren etxean, Oñati abesbatzako kidea da, eta Amaia eta Mikel seme-alabak Ganbara abesbatzan dihardute. "Kasualitatea da, baina emaztea kenduta gainerakok abesbatzeten dihardugu, baina Ganbara abesbatzako profesionalak dira. Gainera, seme-alabak eguztenean doaz Torreviejako Nazioarteko Polifonia eta Habaneren lehiaketan parte hartzera. Askoan egin ditugu bidaia hain zuzen, eta oraingoan ezin gara joan".

### "Julio Caro Barojaren eskutik sartu nintzen literatura munduan; harekin egin nuen tesia"

Historiari buruzko 12 liburu idatzi ditu -azkena, *La empresa vasca en Terranova* izeneko-, baina "enkarguz" beste hainbat lan idatzi ditu: "Aita Madinaren biografia idatzi nuen, eta Jose de Azpiazu gitarra jolearena ere bai. Azken hau, nire aitaren lehengusua zen". Idaztea "droga bezalakoa" dela uste du, baina filosofia ikasketak egin zituen. "Literaturara Julio Caro Barojaren eskutik iritsi nintzen. 27 urterekin Lesakan egin nintzen irakasle lanak egiten, eta han ezagutu nuen Julio Caro Baroja. Adiskidetasun polita egin genuen, eta Oñatira bueltatu nintzenean tesia egiteko laguntha eskatu nion". Caro Baroja Beran bizi zen orduan, eta Azpiazuk askotan egiten zion bisita tesiko zuzenketak egiteko. "Oso ondo hartu ninduen beti. Askok zioten berezia zela, eta baita burugorra ere; baina, jatorra zen. Nirekin hartu-eman oso ona izan zuen, eta oroitzapen oso onak ditut", esan digu.

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitzaz salgai. Zabaltegin. Sukaldia-jangela, hiru logela, komuna, balkoi eta sotoa. Erdiarrak. Prezio zinean. 635 72 67 11.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai edo errentan. Bi logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. Arropak eskegitzeakoa. Igogai-luarekin. Oso eguzkitsua. 20 metro koadroko trastelekuaren. 663 38 39 33.

**Gasteiz.** 80 metro koadroko etxebizitza Mendizorrotzan. Hiru logela eta bi komun. Gas beruntza indibiduala. Hego-men-debaldera eta dena kanpoalde-ra begira. Igogai-luarekin eta garaje plazaiez. 615 70 99 86 edo 605 72 14 38.

**Oñati.** 105 metro koadroko duplexa salgai. Prezio adosteko. 635 71 41 39.

**Oñati.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Prezio adosteko. 635 71 41 39.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Zerrajera kalean. 950 euro. 646 81 03 35.

**Arrasate.** Unibertsitatetik ger-ru etxebizitza ematen da erren-tan ikasleentzat. 688 64 28 27.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Madura kalean. 696 84 11 51.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan. Oso egoera onean. 626 00 96 32.

**Conil.** Apartamentua ematen da errentan. 615 75 11 47.

**Donostia.** Biikasle neskarentza-ko pisua ematen da errentan Donostia erdialdean. 2008ko urriktik 2009ko ekainera, biak barne. 620 06 35 92.

**Jaca.** Apartamentua. Bi logela eta garajearekin. Urbanizazioa bi igerilekurekin (nagusia eta umea) eta bitenis pistarekin. Inguruan umeendako jolasleku-ka. 665 73 95 65.

**Vieux Boucau** (Landak). 10-12

pertsonarendako etxe indibiduala errentan. 2008an guztiz berritua. Bost logela, bi komun, terraza, lorategia eta barba-koak. Astebete gutxienez. Hon-daritzatik eta herrikigertu. 669 00 75 49.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Arrasate.** Bi neska gaztek etxe txiki eta apartamentua erren-tan hartuko genuke. Telefona: 659 55 25 60.

**Arrasate.** Bikote batek etxebi-zitza edo logela hartuko luke errentan. Ahal izanez gero erdialdean. 666 21 88 95 edo 943 77 13 10.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Iñaki. Telefona: 608 49 89 93.

**Baserria** hartuko nuke errentan, berdin da egoera. 669 17 09 51.

**Bergara.** Neska batek etxebizi-tza hartuko luke errentan. Mar-ta. 617 00 90 83.

**Debagoina.** Bi logela edo gehia-goko etxebizitza behar dut errentan. Presazko. Telefona: 630 31 84 34.

**Debagoina.** Eskoriatza, Arra-sate eta Aretxabaletan etxe txiki bat urte osorako errentan hantu nuke. 635 12 87 82.

## 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Pertsona bakarra-mentzat logela ematen da erren-tan. 619 83 68 19.

**Aretxabaleta edo Arrasaten.** Mutila etxeak osatzeko edo logela alokatzen gertu. 662 08 22 03.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Erasmus ikasleen-tzat logelak hartuko genituzke errentan irailaren hasieratik abenduaren bukaera arte. Ingelesa praktikatzeko aukera bikaina. 656 77 66 32.

**Arrasate.** Bi pertsona behar dira etxebizitza osatzeko, univer-sitatis oso gertu. Telefona: 651 70 85 13 edo 665 70 00 27.

**Donostia.** Bi neska behar dira etxebizitza osatzeko, univer-sitatis oso gertu. Telefona: 651 70 85 13 edo 665 70 00 27.

**Arrasate.** Emakumea eku-leria-ko pertsona bat behar da. Deitu 21:00etik aurrera. Telefona: 680 17 38 37.

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan. 610 02 65 39.

**Arrasate.** Etxea osatzeko bieido hiru ikasle behar ditugu univer-sitate ondoan. Nork bere gela eta gas naturala. 630 71 35 83.

**BERGARA**

partsonarendako etxe indibiduala errentan. 2008an guztiz berritua. Bost logela, bi komun, terraza, lorategia eta barba-koak. Astebete gutxienez. Hon-daritzatik eta herrikigertu. 669 00 75 49.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Arrasate.** Bi neska gaztek etxe txiki eta apartamentua erren-tan hartuko genuke. Telefona: 659 55 25 60.

**Arrasate.** Bikote batek etxebi-zitza edo logela hartuko luke errentan. Ahal izanez gero erdialdean. 666 21 88 95 edo 943 77 13 10.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Iñaki. Telefona: 608 49 89 93.

**Baserria** hartuko nuke errentan, berdin da egoera. 669 17 09 51.

**Bergara.** Neska batek etxebizi-tza hartuko luke errentan. Mar-ta. 617 00 90 83.

**Debagoina.** Bi logela edo gehia-goko etxebizitza behar dut errentan. Presazko. Telefona: 630 31 84 34.

**Debagoina.** Eskoriatza, Arra-sate eta Aretxabaletan etxe txiki bat urte osorako errentan hantu nuke. 635 12 87 82.

**Donostia.** Bi neska behar dira etxe osatzeko datorren ikas-tearrean (erretzailerizek). 651 70 85 13 edo 665 70 00 27.

**Donostia.** Bi neska behar dira etxe osatzeko datorren ikas-tearrean (erretzailerizek). 651 70 85 13 edo 665 70 00 27.

**Arrasate.** Emakumea eku-leria-ko pertsona bat behar da. Deitu 21:00etik aurrera. Telefona: 680 17 38 37.

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan. 610 02 65 39.

**Arrasate.** Etxea osatzeko bieido hiru ikasle behar ditugu univer-sitate ondoan. Nork bere gela eta gas naturala. 630 71 35 83.

**BERGARA**

## IRAGARKI SAILKATUAK

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketari eta ezta iragarkia bertan behera uterik ere.

# 943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

<http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

Iragarki partikularretan astebete baixo gehiago argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

## 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Aramaiia.** Emakume euskaldu-na behar da ordu bat zuetan umeak zaintzeko. 685 73 58 55.

**Aretxabaleta.** Emakumea behar da bi haiz zaindu eta etxeko lanak egiteko. 650 60 56 35.

**Arrasate.** Pertsona arduratsua behar da goizetan etxeko lanak egiteko. 639 40 52 01.

## 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta eta Donostialdea.** Eskarmentu handiko neska nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. 943 77 20 58.

**Arrasate.** Emakume gaztea gertu nagusiak zaindu eta garbi-keta lanak egiteko, batez ere gauean. 686 42 06 42.

**Arrasate.** Emakumea edozein lanetarako gertu. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume esperien-tziadunek lan egindo luke abuztu-an, edo jaiegun zein asteburu-uetan, nagusiak zaizten edo garbitasun lanak egiten. 638 98 60.

**Arrasate.** Emakumea eku-leria-ko pertsona bat behar da. Deitu 21:00etik aurrera. Telefona: 680 17 38 37.

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan. 610 02 65 39.

**Arrasate.** Etxea osatzeko bieido hiru ikasle behar ditugu univer-sitate ondoan. Nork bere gela eta gas naturala. 630 71 35 83.

**BERGARA**

## 3/ LOKALAK

## 304. ERRENTAN HARTU

**Lokala** hartuko nuke errentan. Gehienez ere 350-400 euro. 669 17 09 51.

**Arrasate.** Bi pertsona behar dira etxebizitza osatzeko. 620 52 94 98.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 21:00etik aurrera. Telefona: 680 17 38 37.

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan. 610 02 65 39.

**Arrasate.** Etxea osatzeko bieido hiru ikasle behar ditugu univer-sitate ondoan. Nork bere gela eta gas naturala. 630 71 35 83.

**BERGARA**

**Ile apaindegia eta estetika zentroa eskualdatzen da, ezin atenditzeagatik 609 52 38 54**

biketa lanetarako. Telefona: 686 99 59 41.

**Bergara.** Esperientziadun neska umeak zaintzeko gertu. 680 17 33 61 edo 943 76 08 76.

**Bergara.** Haurrak zainduko nituzke irailetan aurrera esperientzia daukat. 943 76 08 76.

**Debagoina.** Neska esperientziadun gertu ostalaritzaz, arrandegi, fruta denda eta abarretan lan egiteko. Egungo edo asteburu-uetan. Abuztuan ere bai. 608 53 93 02.

**Bergara.** Neska lanetarako ger-ru. Orduka. Garbiketa lanetarako edo umeak zaintzeko. Telefona: 671 97 19 30.

**Debagoina.** Neska euskaldu-na uztalean eta abuztuan umeak zaintzeko prest. Telefona: 696 10 26 62.

**Oñati.** Irakaslea eta lehen mai-lako Psikologia ikasketak dituen neska uztalean lanerako prest. 651 70 85 13.

**Debagoina.** Emakumea garbi-tasun lanak egiteko prest, baita pertsona nagusiak zein haurrak zaindutzen gertu. 650 70 98 76.

**Debagoina.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta haurrak edo nagusiak orduka zaindutzen gertu. 676 61 15 47.

**Arrasate.** Ingeleseko eskola ematen ditut. Zortzi urteko aurrera. Eskola laguntza ere bai. 635 73 58 38.

**Debagoina.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta haurrak edo nagusiak orduka zaindutzen gertu. 676 61 15 47.

**Bergara.** Eskola partikularrak ematen ditut. 6-10 urteko haurrak, irailetan aurrera. Espertenzia daukat. 680 17 33 61.

**Debagoina.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta haurrak edo nagusiak orduka zaindutzen gertu. 676 61 15 47.

**Arrasate.** Emakumea eku-leria-ko pertsona bat behar da. Deitu 21:00etik aurrera. Telefona: 680 17 38 37.

**LEINTZ GATZAGA**

• 172 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza eta 219 m<sup>2</sup>-ko orubea.

**DULANTZI**

• AUKERA: 2.000 m<sup>2</sup>-ko lursailan, 840 m<sup>2</sup>-ko pabiloia.

**ERRIOXA-CIRUEÑA**

• Golf egoitzaldea. 82 m<sup>2</sup>. Garajearekin. Estreinatzeko.</p

## astea GOITBn

Astelehena, 21



> Maider Undarekin izan da Xabi Urtzelai  
21:15

Harmailatik saioan, Maider Unda borrokalarri aramaioarraren entrenamendua ikusiko ditugu Xabi Urtzelai kaze-tariaren esku.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bividunak: Munduko futbol txapelketa.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Erreportaje-Ttipi TTapa.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Ilunpean.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Wazemak.

16:15 Ikusten.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazkiak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Hitz bitan.

18:15 Teknopolis.

18:45 Berriak.

19:15 Animalia.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bividunako.

20:45 Berriak.

21:15 Harmailatik.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Erreportaje.

22:15 Kirolari.

22:45 Berriak.

23:15 Harmailatik.

22:45 Gaurkoak.

23:30 28 Klipa.

00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 22



> Gaurkotasuna dakar Berbairek, martitzenero  
21:47

Julen Iriondo kazetari oñatiarrak aurkezten duen saioan, gaurkotasunezko hainbat gai landuko dituzte kolaboratzaileekin batera.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bividunak: Munduko futbol txapelketa.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Erreportaje.

14:15 Harmailatik.

14:45 Berriak.

15:15 Ilunpean.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Wazemak.

16:15 Ikusten.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazkiak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 28 Klipa.

18:15 Musikantoi.

18:45 Berriak.

19:15 Marrazki bividunak.

19:45 Berriak.

20:15 Kantari.

20:45 Berriak.

21:15 Hitz bitan.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Berbaire.

22:15 Euskaldunok hizketan.

22:45 Berriak.

23:15 Ikusten.

22:45 Gaurkoak.

23:30 Erreportaje.

00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 23



> Antzuolako jaien errepasoa Goiena telebistan  
21:47

Mairuaren alardea, marmitarra lehiaketa eta kaleko giroa, bestekatzen. Antzuolako jaietako une onenez gozatzeko aukera GOITBn.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bividunak: Munduko futbol txapelketa.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Kantari.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Animalia.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Kirolari.

16:15 Eltze beroa.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazkiak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Animalia.

18:15 Harmailatik.

18:45 Berriak.

19:15 Marrazki bividunak.

19:45 Berriak.

20:15 Kantari.

20:45 Berriak.

21:15 Hitz bitan.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Antzuolako jaiak.

22:15 Ur eta Iur.

22:45 Berriak.

23:15 Ikusten.

22:45 Gaurkoak.

23:30 Jazzmina.

00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 24



> Musika indartsua eguen gauak berotzeko  
22:15

Maider Arregiaren eskutik Euskal Herriko eta ibarreko musikarien berri izango dugu. Musika zaleentzat galdu ezinezko hitzordua.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bividunak: Munduko futbol txapelketa.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Antzuolako jaiak.

14:15 Euskaldunok hizketan.

14:45 Berriak.

15:15 Muka muka.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Ur eta Iur.

16:15 Euskaldunok hizketan.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazkiak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Ilunpean.

18:15 Kirolari.

18:45 Berriak.

19:15 Marrazkiak.

19:45 Berriak.

20:15 Kantari.

20:45 Berriak.

21:15 Erreportaje.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Berbaire.

22:15 Musikantoi.

22:45 Berriak.

23:15 Hitz bitan.

22:45 Gaurkoak.

23:30 28 Klipa.

00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 25



> Begoña Del Teso izango da 'Ilunpean' saioan  
22:15

Iker Barandiaranek gonbidatuta, Begoña Del Teso kazetari donostiarra izango da 'Ilunpean' saioan. Modu ausarteetan idazten duen zine kritikaria da.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bividunak: Munduko futbol txapelketa.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Ur eta Iur.

14:15 Euskaldunok hizketan.

14:45 Berriak.

15:15 Muka muka.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Ur eta Iur.

16:15 Euskaldunok hizketan.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazkiak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Ilunpean.

18:15 Kirolari.

18:45 Berriak.

19:15 Marrazkiak.

19:45 Berriak.

20:15 Kantari.

20:45 Berriak.

21:15 Erreportaje.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Animaliak.

22:15 Ilunpean.

22:45 Berriak.

23:15 Musikantoi.

23:45 Gaurkoak.

23:30 28 Klipa.

00:15 Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

> Oraingoan, India bisitatzeko aukera

11:30

Etxetik mugitu barik, India bisitatzeko aukera eskaintzen du Arraste Irratiak. Martitzenean izango da hitzordua, 11:30etik 12:00ak bitartean. Eguenean, ostera, sexologia kontuak izango dituzte berbagaiz ordur berean.



Oihane Perez Kazetaria

**kuxkuxeroa****Xabier Urtzelai****Egutegixeい  
egunek kendu  
eta kendu**

**G**aiñien dauz oporrak. Batzuendako azkeneko lan astie izengo da hau, beste batzuk hillan 30era arte egongo die biherrien eta gehixenok geldialdixe egingo dou agostuen. Egunotan jentieri galdueta eta galduet ibilli naz, nora juengo dien oporretan, gero hamen kontetako, kuxkuxeruen atalien. Gure **Aran-txik** Kubarako bidie hartuko dau, Menorkara juengo da **Oxeltxo**, furgoneta eta guzti. **Pontxu-k** Akitania bizikletan ziherkatuko dau, eta Bretania aldera doie **Urtzi. Marke-lek** Andorra aldera egingo

**"Batek baiño  
gehixauk Udalako  
igerilekuen pasauko  
dau agostue,  
deskantzetako..."**

dau bizikletiek, eta aurten be Rosaseko hondartzan plisti-plasta ibilliko da **Lide**.

Hipoteka izeneko bizilagunek krisis izeneko andregai-x topau duela-eta, batek baiño gehixauk Udalako igerilekuen pasauko dau agostue-deskantsetako, edarto-, eta lagunen gaiñien berba egindde, neure asmuek be kontau biherko dittut: **Mertxe(des)** ondo portetan bada Galiziako eta Portugaleko kostaldien ibilliko gara.


Gehixenok, baiñe, agostue bukaketan danien bueltan etorriko gara. Eta gehixenok esaten dot, **Larraitzek eta Garik** biajien jarraittuko dauerako. Agur esateko bazkarixe egin geuen zapatuen, Andramarin-sahieskixek, edarrak-. Etxera bueltan, holako beste bat. Ondo pasau!

**PARTe HARTU**

Kintadak,  
aste bukaerako  
ezkontzak,  
txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure  
txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:  
[astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)



**OÑATI**  
**Luisa Hernandez**  
Uztailaren 14an. Zorionak amama, ondo ondo pasa eguna, eta urte askotarako. Muxutxo asko etxeko partetik. Bereziki Mario.



**DEBAGOIENA**  
**Jon Regaño**  
Uztailaren 14an. Gaur goizean eperrak esan digu bizitzaren lorean zaudela. Oraindik gaztea zara! Patxo potolo bat guapisimo eta Zorionak Oihana, Lihet eta Itziaren partetik.



**ARRASATE**  
**Ainhoa Vizcaino Urrutia**  
Uztailaren 17an, 9 urte. Zorionak eta patxo haundi bat etxeko eta parkeko lagunen partetik.



**ANTZUOLA**  
**Aiora Legorburu Rodriguez**  
Uztailaren 18an, 3 urte. Zorionak Aiora, Amairu eta beste danon partetik.



**ARETXABAleta**  
**Garazi eta Nahia Diez Garciaetxabe**  
Uztailak 18an, urte bat eta uztailak 30ean, Surte. Zorionak aitatto, amatxo eta etxeko partetik. Patxo haundi bat!



**BERGARA**  
**Aritz Rodrigo**  
Uztailaren 18an, 11 urte. Zorionak Amaren, osaben eta Iraiaaren partetik.



**OÑATI**  
**Jon Beitia**  
Uztailaren 18an. Zure familiaren partez eta batezere zure lehengusu Unairen partetik ondo pasa eguna.



**OÑATI**  
**Zuriñe Beitia**  
Uztailaren 18an. Zure familiaren partez eta batezere zure lehengusu Unairen partetik ondo pasa eguna.




**OÑATI**  
**Ander Blazquez Catalan**  
Uztailaren 19an. Merendola goxua prestatu eta denoi gonbidatu. Zorionak eta patxo haundi bat Blazqueztarren partetik.




**ARRASATE**  
**Jean Pierre Seclen Luna**  
Uztailaren 20an. Zorionak osaba!!! Oso ondo pasa zure egunean. Muxu handi bana Juleneren eta Iratiren partetik.



**OÑATI**  
**Jon Freire Arzamendi**  
Uztailaren 20an. Zorionak, eta ondo-ondo pasa zure urtebetetze eguna. Patxo erraldoia familia danan partetik, potxolo!



**BERGARA**  
**Irene Azkargorta Juaristi**  
Uztailaren 20an, 8 urte. Etxeko guztien partetik, patxo handi bat!

**ARETXABAleta**

**Mikel Egia Barandiaran**  
Uztailaren 21ean, 8 urte. Zorionak eta Iaztan bat etxeko guztien partetik.

**BERGARA**

**Marisol Otaño**  
Uztailaren 21ean. Zorionak ama, aita, anai-arreben eta Izarreren partetik.



**ESKORIATZA**  
**Aintzane Ortiz**  
Uztailaren 22an, 5 urte. Zorionak printrzesal. Zure familia guztien partetik eta bereziki Aimar eta Iruneren partetik, eguna ondo ondo pasa eta patxo haundi bat.



**ARRASATE**  
**Enaitz Errasti Diez**  
Uztailaren 22an 6 urte. Zorionak Enaitz!!! Ondo pasa eta muxu handi bat familiaren partetik.



**ARETXABAleta**  
**Eñaut Betege Jausoro**  
Uztailaren 22an, urtebetetze. Zorionak eta Iaztan handi bat etxeko guztien partetik.



**BERGARA**  
**Sherezade Moreno**  
Uztailaren 23an. Zorionak eta urte askotarako!!! 25 muxu erraldoi etxeko partetik.



**BERGARA**  
**Izar Muñoz**  
Uztailaren 23an. Zorionak gure printza aitatto, amatto eta familiaren partez.



**OÑATI**  
**Katia Madina**  
Uztailaren 23an, 27 urte. Zorionak kuardillako danon partetik eta muxu haundi bat!



**ARRASATE**  
**Irene Murua**  
Uztailaren 23an 6 urte. Zorionak Irene!!! Ondo pasa eta muxu handi bat familiaren partetik.



**ARRASATE**  
**Iker Zubizarreta**  
Uztailaren 23an, 6 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztien partetik.




**OÑATI**  
**Gorka Galdos**  
Uztailaren 23an. Suitza aldean ondo ospatuko duzulakan, jaso patxo handi bat aita, ama eta Andoniren partetik. Zorionak!



**ARETXABAleta**  
**Claudia Diaz de Mendibil Azkotia**  
Uztailaren 25ean, 2 urte. Zorionak potxola! Txabolan ikusiko gara Argi eta Solirekin jolas-teko. Egun zoragarri bat opa dizut. Patxo handi bat. Naroa.



**ARETXABAleta**  
**Anita Aretxaga, Uxue Ibabe eta Aitziber Santamaría**  
Amama Anita, uztailaren 25ean, Uxue Ibabe, uztailaren 30ean (urtetxo bat) eta Aitziber Santamaría abuztuaren 12an urteak beteko dituzte. Zorionak etxeko partetik eta ondo ondo pasa.



**OÑATI**  
**Joseba Molinero**  
Uztailaren 26an. Zorionak kirolari! Ondo ondo pasau eguna ta zelebrauko danok afai on batetkin! Muxu haundi bat!



**BERGARA**  
**Iker Olabarria**  
Uztailaren 29an. Zorionak Iker!!!! Patxito pilat zure lehengusu eta lehengusinen partetik!



**OÑATI**  
**Eider Egaña**  
Abuztuaren 2an, 6 urte. Zorionak etxeko partez, printseza! Patxito haundi bat Leire eta Markelen partetik.



**BERGARA**  
**Hodei Gomez de Balujera Oregi**  
Abuztuaren 3an, 8 urte. Zorionak familiako partetik, bereziki Haritz.



**ARETXABAleta**  
**Leire Gonzalez de Martin Bengoa**  
Abuztuaren 12an, 4 urte. Zorionak eta Iaztan haundi bat etxeko guztien partetik, eta batez be Maialenen eta Hodeien partetik.



**OÑATI**  
**Iñigo Medina Olalde**  
Abuztuaren 15ean 12 urte. Zorionak familia guztien partetik!

## asteburuko albuma



**Erretiro afaria.** Egubakoitzean Arrasateko Meatzerreka auzoan Fagor Etxetresnetan 40 urte baino gehiago lanean ibili den Mertxe Jauregialtzoren erretiro afaria egin zuten. Ederki afaldu ondoren, musika izan zuten. Lankide guztien partekit, zorionak eta bizitzaz disfruta dezazula hemendik aurrera.



**San Joxepe elkarteko sari banaketa.** Bergaran, Santa Marina jaiak aprobetxatzusari banaketa egin zuten egubakoitzean San Joxepe elkartean. Bestak beste, tute, mus, briska, billarrean, bolotan eta igelean jokatu zuten. Joko bakoitzeko onenek sariak izan zituzten. Lehenengo garaikurra eta Clos Amador kava botila bana jaso zuten eta bigarrenenek Sonsierra kriantza bi ardo botila jaso zituzten.



**Arrano elkartearen 25. urteurrena.** Zapatuan Oñatiko Arrano elkartearen 25. urteurrena ospatu zuten. Eguediko 12etan trikipoteo herrikoia izan zuten, eta ondoren, bazkaria egin zuten elkarrekin. Bazkaritarako 70 lagun elkartu ziren. Ondoren, bertsolariak eta trikitilariak izan zituzten.



**Pikulitxa Root's jaialdia Gorlan.** Zapatuan Bergara eta Azkoitia artean dagoen Gorlako kantinaren inguruan Pikulitxa Root's jaialdia ospatu zen. Jaia pailazoekin hasi zuten, eta flamenko, sabel dantza eta reggae musikak izan zituzten ondoren. Pailazoek etxeko txikienen irribarreak atera zituzten. Gero, Armirama taldeak Euskal Herrian egindako flamenko musika zuzenean jo eta dantzatu zuten. Bertaratutakoek gustura egin zuten dantza flamenkoa.

## Jaiotakoak



**Libe Aiestui Martinez**

Aramaio > 4,120 kilo. Uztailaren 8an. Gurasoak: Mirentxu eta Imanol (Arrasate). Argazkian: Libe, amama Kontxirekin.



BABESLEA



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Begoña Del Teso > Kazetaria

## "Ezin dut amodioa euskaraz egin"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

**Begoña Del Teso** kasualitatez hasi zen kazetaritzan lanean, zinemaren gaineko kritikak egiten. Bainan, eskamentu handia hartu, eta bere estilo lotsagabea esker, oso ezaguna eginda kazetaritzan, zinemana eta beste alor batuetan.

Puntual hiltzen zara beti hitzordu guztieta? Erloju faltagatik ez da izango, ezta?

Izugarri puntuala naiz, nire kalterako. Jendearen zain luzet egoten naizenean ulertzen dut zergatik AEBetan hain errez era biltzen diren pistolak. Halakoe tan dirudi itxaroten gauden denbora gutxiago dela. Bestalde, erlojuena apur bat utzi dut. 90 bat izango ditut, baina orain erloju klasiko-klasiko bat nahi dut.

Euskara ikasten zebiltzala irakasle ibili zinen gau eskolatan?

Bai. Garai bereziak ziren eta irakaslerik ez zegoenez, behin euskara apur bat ikasi ahala irakasle hasi behar izaten gin. Ikerak nintzela, nor-nori-nork menderatu eta ikerak jatorra nintzen, baina behin irakasle zine-

nean ezin zenuen akatsik egin. Gogoan daukat izan nintzen lehenengo batzarrean batzuk hika berba egiten hasi zirela, eta eske ma guztiak apurtu zizkidatela. Ez neki halakorik zegoenik.

Orain dela urte batzuk esan zenuen mutil lagunak ez ditu zula euskaldunik izan, eta amodioa ezin duzula euskaraz egin...

Jendeak ez du hori ulertzen, baina hala da. Niretzat amodio hitzak euskaraz esatea artifiziala da, motoetaz edota zezenetaz

### TEST-A

**Herria:** Donostia. **Adina:** 49 urte.

**Ikasketak:** Hizkuntzak eta Itzultziale ikasketak. **Zaletasunak:** Motoak, zezenak, banpiroak eta errugbia. **Zer amets bete duzu?** Motoetan ibiltzea eta banpiroen gaineko jardunaldiak antolatu izana. **Eta zer amets daukazu betetzeko?** Inglaterrako paramoetara bizitzera joatea. **Musikari bat?** Patti Smith. **Banpiro bat?** Dracula. Banpiroak dira garaietara hobeto egokitu diren munstroak. Maite ditut.

euskaraz aritza moduan. Nik gauza horiek gaztelerez bizi izan ditut eta halako ereduak dazkat. Gauza bera gertatuko zitzaidan kabareta gaztelerez entzungo banu...

**Zu, tradizionala, bakarrik zezenketetarako ei zara...**

Bai, berrikuntzak eta arriskua zinemana, motoetan, banpiroetan... izugarri gustatzen zaizkit, baina ez zezenketetan. Zezenketetan berrikuntzak egon behar badira tradizioari uko egin barik izan daitezela.

**Behin baino gehiagotan esan duzu bakardadea maite duzula, baina saltsera hutsa zara, ezta?**

Bai. Jendea eta konpainia ez zaizkit asko gustatzen. Berez nire ametsa da Inglaterrako paramoetan galduztako etxe baten bakarrak bizitza, liburuekin, tabakoarekin eta motorrarekin. Baina lanak behartu nau jendearekin egotera. Geminis izateak eta horren ondorioz nortasun bikotza izateak lagunduko zidan bizitza mota honi eusteari.



ZALETASUNAK Banpiroen, motorren eta zezenen zalea da Del Teso.

ARGAZKI PRESS

### ai, ene!



### Haurrak kontrolpean

Zeion seme-alabak kontrolpean izateko zailtasunak badituzue, horrek badu konponbidea. Asmakuntza horrek Mama Tried du izena, baina oraingoz prototipoa baino ez da. Eskerrak.

<http://nopuedocrear.com>

### biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

#### Primerako materiala

**B**erargarako apaizok egunero ematen dugun Mizpirualde Zaharren Egoitzan. Herenegun, larunbatean, hantxe izango nituen zain berrogei bat agure. Urteek gastatu ditu euren hanka eta bizkarra gehienetan, burua eta bista bestetan. Baina hantxe elkarrekin egon eta fedea ospatzeko desiratzen egoten dira. Presaka bizi garen kultura honetan, hurkoari denboratxo bat eskaintzeko denborarik ez dugun gizarte honetan, Mizpirualden opari eder bat gertatzen zaigu aldataptoxa igo ezkerro: kalean hain justu eta garesti bizi dugun denbora hori doan eman, entzun eta lagundi. Denbora, horixe oparia! Merke erosia eta garesti saldu...



Mizpirualden askok nekaturik bizi dira. Biziak eta, batez ere, urteak errenditu egin diu. Eskamentu handiko gizon-emakumeak dira, dembora guztia besteentzat dute, bihotza jakinduria handiz janitzia, lan askoren maisuak, urtez josia. Baina meza ematen dudanean piztu egiten direla iruditzen zait: zerbaitek –nik uste Norbaitek– bizitzeko gogoa ematen die, beren historiatxoak kontatzeko etengabeko jarioa hasten da dantzaren eta laztantxo baten zain jartzenean. Hemendik eskertu nahi dut bertako langile, nahiz boluntarioen eskaintza. Hara joaten garenok asko ikasten dugu ikusiz. Arduera, konstantzia, dohaintasuna primerako giza materialak dira gizarte honetan. Eta han ugari dago material hori.

### eguraldia



MAXIMOA

+26

MINIMOA

+15

Asteari giro lasaiarekin emanago diogu hasiera. Goizean behe hodeiak, baina arratsaldean urdindu egingo du.

[www.euskalmet.net](http://www.euskalmet.net)



#### Gerentziak erabilitako autoak. 2 Avensis Diesel 126 ZP familiarra

Maila goreneko autoak prezio ezin hobean

- Segurtasunean bere segmentuko onena • 9 aire-poltsa, 5 Euro NCAP izar • Azkeneko teknologiako VVT-i motorra
- Oreka ezin hobea, ezaugarriak, erosotasuna, potentzia, ekonomia eta emisioen kontrola.

Prezioa 26.710 €/ Prezio berezia 22.900 €

Aurreztu 3.810 €

#### EUSKOAUTO

Pasai Antxo  
San Markos 32 eraikina  
Tel.: 943 34 50 80

Elgoibar  
Olaso poligonoa 25  
Tel.: 943 74 74 17

Bergara  
Olabarrena auzoa z/g  
Tel.: 943 76 23 85

Olaberrria  
Yurre auzoa, karob. pol.  
Tel.: 943 80 59 24



FINANCIAL  
SERVICES



[www.euskoauto.toyota.es](http://www.euskoauto.toyota.es)